

uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Enparan kalean
lurpeko
aparkalekuak
egingo dira (26)



 Hilabetekaria • 2002ko apirila, 28. alea • WWW.uztarria.com



SOKA ETEN GABE

Nuarbe Sokatira Taldeak zilarrezko ezteiak ospatuko ditu (22-25)



irratxo



Jostailuak - Paperdenda

Tel. 15 05 30

Sanjuandei auzuen



Behar duzun GUZTIA, HEMEN!!!!

ALTZARIAK
LASA, Erdikale 20
BELARDENDAK
IZADI, Elizkale 1
NATURA, Enparan 15
BISUTEGIAK
AINTZIN, Santiagó 10
DEKORAZIOA
EDERTI, Enparan 10
TRAPOS, Santiago 5
ERLOJUDENDAK
DISDIRA, Elizkale 7
HARATEGIAK
EDUARDO, Erdikale 12
KIROLAK
JOSTALDI, Erdikale 15
KULTUR-ELKARTEAK
ORKATZ, Erdikale 24
LENTZERIAK
ROMAES, Elizkale 3
LORADENDAK
LUR, Santiago 11
MERTZERIAK
GEMA, Elizkale 34



MODA

ANA MARI EGAÑA, Santiago 16
AZKUE, Erdikale 7
BIUR, Erdikale
ENARA, Santiago 8
HAURTXOA, Pérez Arregi Pl 9-5
IBARZABAL, Enparantza Nagusia 7
LIDIA, Erdikale 17
MARTINA ISASTI, Erdikale 10
URRESTILLA, Erdikale 6

OINETAKOAK

ASTIGARRAGA, Erdikale 21
OINKARI, Erdikale 5
OPARIDENDAK
AGIRRE, Erdikale 1
JOSE MARIA AGIRRE, Erdikale 14
TABERNAK

AMAIA, Erdikale 13
ETXEZURI, Pérez Arregi Pl. 7
KORRALE, Erdikale 22
ZUHATZ, Erdikale
ZERBITZU-PROFESIONALAK
ARRIETA R.T.V., Santiago 22
AXA Aseguruak, Erdikale
IOSU Optika, Erdikale
ITURRALDE Iturgintza, Elizkale 12
IZARRAITZ Inmobiliaria, Erdikale 2
JONE ETA MAIKAR Estetika, Erdikale 7
KILI-KOLOR Kopistegia, Santiago 10
KIMETZ Ilepaindegia, Santiago 6
MOTX Ilepaindegia, Elizkale 18
TORREALDAI Asesoria, Santiago 10

Alde Zaharreko
Merkatarien Elkarteak
Uztarriako ale honetako
lehiaketarako
erosketa bonoa
eman du
sari bezala



Azpeitia, Apirilak
Gaueko 10.30etan
Enparantza Nagusia

* Biur
* Gotain
* Haurtxoa
* Iosu
* Jone eta Maikar
* Jostaldi
* Kimetz
* Martina Isas
* Lidia
* Lur
* Motx
* Oinkari
* Romaes
* Urrestilla

Gertuen duzun komertzial zentrua

Juanito Bikendi

Aktorea

Xoxoteko
aterbea
berritzeko zer
egin behar
da?(13)

Amerikar izan
eta Azpeitian
bizi direnekin
solasean
(31-33)



Klik!
I. Kulturaldia,
Uztarriak
antolatuta
(36-38)



Elkarrizketa.
Arantxa
Olaizola
(42)

uztarria

Eskolan zebilela hasi zen antzerkian, Luistarrekin ondoren, Oargin geroxeago eta Antxieta Antzerki Taldean ere aritu zen. Juanitok (81 urte) ez du taula gainean egon beharrik antzerkia bizi izateko

“Antzerkian hitz egiten-eta asko ikasten da”



AKTORE SENA. Umetatik antzerkian hasi eta antzezlan askotan parte hartu izan du Juanito Bikendik. Baina, taula gainean ez bada ere, hark dioen moduan, “tabernan edo kalean” jarraitzen du antzeztan.

Nerea Uranga

Eskola garaian hasi zen antzerkian Juanito Bikendi. Zortzi bat urte zituela egin zuen lehen antzezlan: *Mi Bigote* bakarriketa. “Orduan bruxa jantzita ibiltzen ginen eta antzezlan horretarako egin zidaten lehenengo trajea. Harrezkero zenbat antzezlan egin ote ditut?”. Antzerkirako “tipo ona” zuela esaten omen zioten, mutiko bizia zela. “Mutil kozkorra eta lotsagabea..., beno lotsagabea, bihurria, bihurria nintzela diote”.

Enparan kale barrenekoa da, eta hantxe bizi izan zen Errebalera ezkondu arte. Enparan kalean ere haurretan bihurri fama bazuela kontatzen du Juanitok. Bihurrikerien artean Gorputz egunekoa bat: “Enparango zubiak bajada zuen ibaira eta han zaku zahar bat topatu genuen oilo-lumaz beteta. Garai hartan kaleak loraz-eta apaintzen ziren prozesioa pasatzen zenerako. Guk, berriz, hartu zakua eta prozesioa zetorrela oilo-lumak zabaldu genituen kalean. Gero nire lagunak zaplada ederra ere jaso zuen egin genuenagatik; nik lasterka aldegin nuen, hark jasotako zaplada ikusita...”.



Soreasun antzezlan bat (erdikoa da Juanito).



San Inazio hirugarrengez, emakume jantzita.



Lagun Onak Futbol Taldean jokatzeko.

» Lehen eskola urteak Miserikordian egin zituen, handik Maristetara pasatu zen (Kutxa dagoen lekuan, ibai ertzean zen Maristen eskola). Gero Casinoan —Banco Vitoria den lekuan zegoen— hasi zen *pin-txe* lanetan. Handik Donostiara joan zen; Londres Hotelean egin zituen bi urte, soldadutza arte. Soldadutza Alacant-en egin zuen, sei urtez. “18 urterekin joan eta 24 urterekin etorri nintzen. Latina ikasita etorri ginen, gainera”. Etixeratu eta fundizioan hasi zen lanean.

JUDASEN PAPEREA. Gaur egun Aitone-na dagoen lekuan zen Oargiren lokala, eta bertan tajutu zen *Pasioa* antzezlan. Euskaraz zen; herritar askok parte hartu zuten eta hiruzpalau urtez egin zen.

Juanito prest agertu zen antzezlan hartan ere parte hartzeko: “Prestaketa lanetan ari ginela, ‘Nik neuk Judasena egingo diat eh!’”, neronek bota nuen, eta halaxe Judasen papera egin nuen”. Judas urkatu egiten zen antzezlanean. Baina entseatzen ari ziren batean susto galanta hartu zuen Juanitok: “Ia bertan ito nintzen, benetan gainera. Zuhaitz batetik zintzilikatuta urkatzen zen: bi sokatatik zintzilikatuta eta bizikletaren eserleku batean eserita. Soka bat faltsua zen eta bestea benetakoa. Orduan lagun-tzaile *Solapatxo*-neko Krispin ibiltzen nuen, hark Urolako trenean egiten zuen lana eta egun hartan ezin izan zuen etorri. Beraz, laguntzaile Kandiko *Txalkorra* jarri zen, baina hark sokak alderantziz lotu eta urkatzerako unean hasi nintzen balantzan eta... sokak lepoan tira; hura estuasuna! Heldu nion zuhaitzaren adarrari eta halaxe libratu. Pentsa, urik ezin edanda egon nintzen”.

Pasioa antzeztera Donostiara ere joan ziren, eta han aretoa bete egin zen Juanitok kontatzen duenez. “*Pasioa*-rekin bildutako diruarekin Itziarrera egunpasa joan ginen; han ere zer ibili ote nintzen? Gogoan dut balkoi batetik diskurtsoak-eta botatzen ibili nintzena”. Gero Oargiren izenean beste antzerki lan askorekin taularatu zen Juanito.

ANTXIETAN. 1981ean Antxieta Antzerki Taldea sortu zen eta Juanito talde hartan hasi zen. “Imanol Elias erakustaile ge-

nuela atzera berriro ekin nion antzerkiari, *Sendagile Traketsa* antzezlan egin nuen harekin lehena, eta antzezlan horrekin Gipuzkoan herriz herri ibili ginen. Donostiako Principal Antzokian ere egin genuen San Sebastian egun batez. Gustura ibili ginen, oso polita zen. Imanolek utzi zionean, nik ere utzi egin nion. Gainera, orduantxe erreumarekin-eta gaizki nenbilen eta ebakuntza bat ere izan nuen. Orain tabernatan-eta egiten dut zirkoa; zeinek gezur handiagoa esan eta horrela ibiltzen gara”.

Antzerkirako zaletasuna, taula gainean edo egunerokoan, nabarmena du Juanitok. “Zenbat antzerki egin ditudan ez daukat kontatzerik. Luistarrekin eta Aita Gaztelumendirekin hilean bat egiten genuen; orain Telefónicako eraikina dagoen lekuan taularaten genituen, hiru pezeta izaten zen sarrera eta dena betetzen zen. Oargirekin egindako antzezlanak eta gero, Imanol Eliasekin ere urte mordoan aritu naiz Antxieta Antzerki Taldean. Gero, Zineklub Taldearekin *Bonbolioaren Miraria* laburmetraian parte hartu nuen eta *Goenkale*-n ere Margariren aitabitxia izan nintzen ezkondu zenean. Antzerkian gauza asko ikasten da, hitz egiten-eta asko ikasten da, hori egia da. Eta pentsatzen nuen familian segiziorik izango nuela, baina musikari eta kirolari heldu diote”.

Zezenzalea ere bada Bikendi. Garai bate-

“*Pasioa*’ antzezlan egin nuen, eta halaxe Judasen papera egin nuen”

“Imanol Elias erakustaile genuela atzera berriro ekin nion antzerkiari; ‘*Sendagile Traketsa*’ antzezlan egin nuen harekin lehena antzezlan”

an Saninazio hirugarrengez hiru-lau urtean eurek antolatuta zuten *Torero Bonbero*, zezen-plazan antzeztuz. Baina Juanitok zezen-plaza ez du horrelakoetan soilik zapaldu; izan ere, Lagun Onak Futbol Taldean aritu zenean, Azpeitian futbol zelairik ez eta bertan egiten zituzten entrenamenduak.

Herriari bizia ematen diona da azpeitiar hau. Aurten Inauterietan kalderero atara da eta astelehen gaueko mozorro lehiaketan sari berezia jaso zuen; pailazo jantzita ateratzen suhiarekin.



Kontu-kontalari bizia, gizon bizia

● Bere etxeko egongelan hartu gintuen Juanito Bikendik, bere alaba Mari Joserekin batera. Lehenengo galdera egin orduko, zaparrada batean ekin dio kontuak kontatzeari: txikitako bihurrikeriak, gaztetako juergak, antzerkiko komeriak... Galdera guztiei erantzuteko istorio ugari jar-tzen du adibide. Kontalari ezinhobea da Juanito. Istorio guztiak zehaztasun guztiekin kontatzen ditu, gaur egun desagertuta dauden lekuak non eta nolakoak ziren kontatuz; herritarrak, halako eta honako, ha-

ren eta bestearen aita edo ama, han edo bestean bizi dena. Hark istorioak kontatzen dituen heinean, Azpeitiak urte haue-tan guztietan zer aldaketa nabarmena izan duen ohartzeko parada ematen du.

Gizon ezaguna da herrian, baina ez antzerkiagatik soikik; izan ere, garai batean jaiegunetan eta asteburuetan *Potxolo*-ri egunkariak banatzen lagundu izanak egin omen zuen ezagun: "Etxez etxe ibiltzen nintzen egunkariak banatzen, meza bukatu ondoren jendea ateratzen zenean ere

bai, eta, gainera, txantxetan elkarri adarra joz; batek ohiukatzen zuen '*El Diario Vasco*, *Potxolo*-nak gezur asko', eta besteak, bestaldetik, '*El Diario Vasco*, nik saltzen detenakegi asko', edota '*Unidad*' beste batzuetan, edo 'Ilunabarreko izparringia', eta horrelaxe ibiltzen ginen".

Iaz gaixorik egon zen Juanito Bikendi, Zumarragako Hospitalean ere izan zen, "oso gaizki", Mari Jose alabaren hitzetan, baina "bizkortzen" ari dela. Juanitok bere ironiaz erantzun dio atzetik: "Odol emaile egon naiz Zumarragan; a zer odol pila at-
era didaten!".

Umore bizikoa da, ezbairik gabe. ●



amuko zubitik Jabier Altuna



'EL DIARIO VASCO' DELA ETA

El *Diario Vasco*-ren jabeak zein diren eta zer alderdi politikoren inguruan dauden badakigu, baina ez dut *El Diario Vasco* anti-euskalduntzat hartzen; antiabertzalea baliteke. Euskararen aurka dagoenik ere ez dut uste; alde, izerdi handirik bota ez duela ere egia da eta egin duena (?) beharrak edo interesak bultzatuta.

Hala ere, Azpeitia bezalako herrietan gehien saltzen den egunkaria izateak zenbait gauza esan nahi ditu:

- *El Diario Vasco* egunkariaren "linea editorialari" kasurik ez diogula egiten (behar ba-da inor gutxik irakurtzen dituelako editorialak) eta, esan den bezala, Realta, Azpeitiko berriak, eskelak, ohitura... arrazoi hauengatik irakurtzen dugula.

- Benetan pentsatuko bagenu antieuskalduna dela, askok ez lukete erosiko (ez zait irudi-

tzen ABC-k daukan "linea editoriala" jarraituko lukeen egunkaririk salduko zenik).

- Ez zaizkit gehiegi gustatzen egunkari hau erostea kritikatu erabiltzen diren arrazoiak; ea bada, zer esan nahi da? *Deia*, *Gara* edo *Euskaldunon Egunkaria* bakarrik irakurri behar genituzkela? Eta gero zer: hor ere sailkapen bat egin behar al da zein den euskaldunagoa jakiteko? Eta behar bada, *El Diario Vasco* irakurri ezin badaiteke, *TVE*, *Antena 3*, *Tele 5* eta beste hainbat irrati ere ez. Ba al da norbait hau egiten duenik? Non dago neurria? *Estudio Estadio* bai baina *Telediario* ez? Edo *Estudio Estadio* ere ez genuke ikusi behar? Gure herrian argi dago *El Diario Vasco* irakurtzen dela baina EAJ-PNVri, EARI eta Batasunari ematen zaiela botoa; nik behintzat neure euskalduntasuna ez dut zalantzan jartzen egunkari bat edo beste irakurtzeagatik.

azketako ude Ainhua Odriozola



BIGARREN ZINEAREN LEIHOA

Azpeitiko Zine Klubaren zilarrezko ezteiak, 25 urte zinearen inguruan lanean. Urteurren hau ospatzeko, talde honek filmagintzan egindako lanak ikusteko aukera izan dugu Kaito Tebistaren eskutik. Zine dokumentala (uholdeen kronika tristea, 1979ko Kilometroak...), eta fikzio zinea, lamien mitoaren bertsi abangardiako deliziosa... besteak beste.

Zine talde honen jarduera ez da oso ezaguna izan niretzat, baina bai ostiral gaueko zine forum emanaldiena, eta honetaz egin gura nuke berriketan. Zinean komertzialtasunak agintzen duen garai hauetan, eta filmak kontsumo gai huts bihurtu direnean, kalitateko zineaz gozatzeko aukera eskaini baitigute azpeitiarroi. Ni neu, behintzat, nazka-nazka eginda nago zinera joan eta patro beraz moztuta dauden filmak ikusteaz. Bigarren minuturako pelikularen amaiera asmatzen baduzu, argudio eta egoera sinesgaitzak irentsi ezinean bazabiltza, edo efektu berezi eta irudi txundigarrien azpian mezuren bat bilatu nahian,

zer zine motaz ari naizen ulertuko duzulakoan nago.

Ostiral gauean, aldiz, Soreasura inguratu naizenean, mota askotako pelikulak ikusi ahal izan ditut: urruneko kulturez hitz egiten ditugutenak, zuzendari ezberdinen ikuspegiak erakusten dizkigutenak, kontatzeko, esateko eta transmititzeko asko dutenak. Batzuetan gustukoak, besteetan ez hainbeste, konplikatuak, errazagoak, jarraitzeko zailak apika... baina inoiz ez axolagabe utzi nautenak. Zerbait kontatzeko grina duen jendeak, jendearentzako egindako filmak. Filme hauekin barre egin dut, hunkitu egin naiz, emozionatu, belurtu... baina, batez ere, ikasi egin dut. Filmak ikusten ikasi egiten baita, bai bizitzaz, baita zineaz ere, ikusten eta estimatzen alegia. Eta gozatuz ikasi nahi dut. Zinegile batek zioen bezala, zinea bizitzaren alderdi ezkontuak erakusten dizkigun leihoa da, eta Azpeitian zinearen haize freskoa sartzen utzi duen leihoa Zine Klubekoek ireki dute. Zorionak.

puntie ateaz

Enekoitz Esnaola

SINBOLOAK ETA TERMINOLOGIA

Juridikoki existitzen ez den nazio batentzat oso garrantzitsuak dira sinboloak. Horregatik da ona EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormena) sortzea; gainera, agiri praktikoa ere bada. Gurean, Bai Euskal Herriari-k Udalari EHNA tramitatzeko eskatu berri dio. DNI tramitatzen du Udalak...

Juridikoki existitzen ez den nazio batentzat oso garrantzitsua da terminologia politikoa. Gurean (ere), udatik Azpeitia. *Euskadi / Pais Vasco. Ongi etorri, bienvenidos, welcome, bienvenuts* seinaleak daude. Begiko minagiten du *Euskadi* ikustekak, *Euskadi* ez baita ezer, Sabino Aranak asmatutako hitz madarikatu bat baino ez. Bai Euskal Herriari-k ez du zertan Udalaren baimena izan seinaleetan gainerik *Euskal Herria* kartela jartzeko. Eskerrik asko, *muchas gracias, thank you, merci beaucoup*, kasu horretan.

bota bertsue

Ruben Gorrotxategi

NUARBE

Kirol honetan pasatzearen zuek hogeitabost urte, nik zorionak eman nahi ditut sufrimendu denen truke. Sokatira hori dala ta ez dala begira zenbat bertute: lehen ezezagun gendun auzoa ezagun egin dezute.

Hainbeste aldiz jarri dezute buru gainean txapela, sufrimendua zen zutabea ezin zitekeen bestela. Ilusioa badaukazute ta ez gainera txapela beraz, aurrera segi zazute orain artean bezela.



'SOKAMUTILA' HAUTSITA.

Santiago kalean hilabete besterik ez duegin osorik Sokamutila irudiak, hautsita azaldu zelako larunbat batean. Larunbat gaueko kontuak omen... Gauza bat da ondo pasatzea, eta bestea puskatzeko tentazioa ematen duen hori puskatzea.



ZUHAITZAK KENDUTA. Ehundaka zuhaitz jarri zituzten ilusioz umeez, agintariekin batera, Zuhaitz Egunean... eta hurrengo egunean bakan batzuk besterik ez zeuden, toki pribatuan jarriak zirelako gehienak. Nola azaldu hori umeei?

gutunek

'Azpeitian Zer?', egia zer?

Honoko ohar hau bidali genuen, behar bezala sinatuta, *Azpeitian Zer?* aldizkariaren 2. aldiko 43. zenbakia eskuratu ondoren (Azpeitiko Udala, Alkatearen Idazkaritza, *Azpeitian Zer?*, Azpeitia helbidera), 2002ko otsailaren 7ko datarekin:

"Azken *Azpeitian Zer?*-en (2. aldia, 43 zb.) argitaratutako *Azpeitia informazio iturri* deituriko artikuluari buruz, honoko hau agertu nahi genuke, artikulua- ren idazleak ezagutzen ez di- tuenez Azpeitiarekin lotura bat duten komunikabide guztiak, edo behar bada ezagutu arren, beraietako bat isilean gorde nahi izan duelako.

Artikulu horretan, Kaito Telebista, Loiola Irratia, DV-ko Azpeitiko kronika, *Uztarrria* eta *Azpeitian Zer?* aipatzen dira, guztiak aipatu beharrekoak gaiari helduz.

Baina herriko Udalak zabal- tzen duen aldizkari batek osatu gabeko informazioa ematea, in- formazioari buruz jardutean

gainera, *Azpeitian Zer?* aldizka- riak agertzen duen bezala, nahiko harrigarria dela iruditzen zaigu, egia guztia ez baita ager- tzen.

Hamasei urte dira (bada zer- bait), Arrate Irratiak Azpeitiko berriak adierazten dituela. 1986. urteko otsailean hasiak gara, bertako berriemile beza- la, asteen behin gutxienez (as- teazkenero, 12:45etatik 13:00- etara bitartean), 10-13 minu- to saioa egiten dugula, *Gaiztoa* izenpeturik gure lana.

Saio horretan, Urolaldeko al- bisterik nagusiak jasotzen aha- legintzen gara (Azpeitia, Azkoi- tia eta Zestoa). Eta azpeitiarra izanik, esan beharrik ez dagoe- la iruditzen zait, Azpeitiak beti izan ohi duela gure aldetik apar- teko tratamendu bat.

Sortu zenetik euskaraz baka- rrik egiten duen komunikabide bat baztertu da aurretik aipaturi- ko kronika horretan, ongi mere- zi badu ere aintzakotzat har- tzea. Negargarria...

Ondorengo alea ere eskuratu dugu (2. aldia, 44 zb.), baina di- rudienez, gure oharrak ez du merezi izan aintzakotzat jartze-

rik, eta Azpeitiko informazioan oinarritzen edota era finkoan ja- rraitzen duten komunikabideak: Kaito Telebista, Loiola Irratia, DV-ko Azpeitiko kronika, *Uztar- rria* eta *Azpeitian Zer?* bakarrik dira.

Betidanik entzun dut, jakin- tsuena dela errekifikatzea, bai- na zerbaitek huts egiten du.

Imanol Elias Odriozola

'Beltxa' nire adiskide eta laguna

Kalean topatu nuen orain dela hamabi urte, eta aurtengo mar- toxoaren 2an hil eta 3an lurpera- tua izan zen *Beltxa* zakurra. Ur- te batzuk zituen eta hiltzea ger- tatu. Hala izanik, zer egin?; za- bor ontzira edo zabortegira bo- ta? Ez alajaina! Ez zuen hori merezi! Batekin hitz egin eta baimena eman zidan lurpera- tzeko; esker mila hari, eta lasai- tasuna niretzako. Eta galdera

da: ez al du eskubiderik abere batek lurperatzeko? Badakit Zarautzen badagoela hilerria abereentzako, eta Azpeitian, berriz, zergatik ez dago abere- entzako hilerrik? Zenbait per- tsonek baino adiskidetasun, fi- deltasun eta maitasun handia- goa agertzen dute, eta behar den lekuan gorde edo lurpera- tzea merezi dutela.

Ea halakoren batean, abereak dituzten azpeitiarrak eta abere zaleak garen denok elkartzen garen eta arazo honi irtenbidea ematen diogun.

Agur *Beltxa* eta ondo izan.

Amaia Garmendia

Jai triste bat...

Larunbatak, igandeak tristeak dira... Ez jenderik, ez ezer... Al- de zaharrean, behintzat. Hau konpontzeko ez al da ezer egin- go? Ez al dago ideiarik alde za- harra pixka bat pizteko? Edo ez da komeni zaharra berritzea?

Jon Arregi

akullue



Leire Ostolaza

SOKAMUTILA
DESAGERTU
OMEN DELA

Frontoi Txiki aldamenean jarri zuten brontzezko eskultura berria otsailaren 10ean. Hilabete bat iraun du bere lekuan zezenak eta bere aurrean sokamutilak. Joan den martxoaren 16an desagertu egin omen zen sokamutila. Desagerketa dela-eta hipotesi desberdinak entzun ahal izan ditugu azken egunetan kalean eta horietako batzuk agertu nahi nituzke txoko honetan:

- **Lapurreta.** Irudiak brontzezkoak omen dira, eta beharrean zegoenen batek eraman ote duen esaten da, brontzea urtu eta pisura saltzeko.

- **Antitaurinoak.** Zenbait tek dio zezenketen aurka-koek eramango zutela, zezena hobeto egongo zela-koan sokamutilik gabe.

- **Mozkorrak.** Hauxe da indar handien duen hipotesia. Izan ere, denok dakigu zenbaitzuk muturra bertutakoan edozer egiteko gai direla, eta batek beste-ari baietz eta honek ezetz esan eta konturatzera astakeria galantak egin daitezke.

Kontu hauek guztiak entzun ditugu, beraz, azkenaldian, eta nire uste apala zera da: sokamutilak, Azpeitiko gazte bat izanik, eta azkenaldiko gertakizunen ondoren, alkatea salaketa jartzera etorri baino lehen hanka egitea pentsatu duela.

webeko eztabaidie

GAIA: EHNA agiria
tramitatzeko Udalak jarri
behar al ditu baliabideak?
Hona gutun sorta bat:

Beste txartel bat?

EHNAren jabe izateak abertzaletasunaren maila ofiziala neurtzen badu, neurri-tresna kaskarra dela iruditzen zait. Paper edo plastiko zahar bat gehiago poltsikorako: Euzko Herriko nortasuna, Espainiako nortasuna, ezkontutakoa, kiroldegikoa, Realekoa, Lagun Onak-ekoa, mendizaleena, Gurutze Gorrikoa. Txartelak ematen al didate NORTasuna? Dena den, nahi duen orok lor dezake EHNA, eta Azpeitiko Udalak erraztu dezala.

Ximela

zer diyo?

KULTURALDIA ETA GERO ZER?

Bukatu da Azpeitiko I. Kulturaldia, Uztarria Kultur Koordinadorako taldeek bat eginda antolatu duten hilabete kulturala. Hilabete horretan hainbat kultur ekitaldi sortu eta erakutsi dituzte herriko taldeek.

Kulturaldi hau, baina, ez da lur-azpitik atera. Aurreko hilabeteetan gogoeta egiten jardun dute taldeek, eta kezkatuta agertu dira. Kezkatuta, herriko egoera, kultura aldetik, nahikoa patalogia delako. Ez dira, oro har hitz eginda, ekitaldi asko antolatzen, eta azpeitiarrek ez daukate herrian herritarrek sortutako kultura kontsumitzeko ohitura handirik. Eta horregatik egin dugu kulturaldia: taldeek badutelako zeregina. Herriko kultur dinamika piztea, neurri batean, taldeen esku dagoelako. Eta kulturaldiaren helburuetako bat, azken batean, herria kultura aldetik pizteko bide horretan lagungarri izatea zelako.

Alde on asko izan ditu Kulturaldiak. Baina ez dezagun geure burua engaina; oraindik egoera ez da batere ona. Oraindik gogoeta sakonean aritu beharra dugu. Eta oraindik egin egin behar dugu, asko gainera.

PARTEHARTZEA. Uztarria Kultur Koordinadora osatzen dugunontzat ezinbestekoa da partehartzea. Ezinbestekoa da herritarrek taldeetan parte hartzea, proiektuak bultzatzea, kultura sortzea. Horretarako, jakina, taldeek egin behar dute lehenengo pausoa. Eta lana, lana egin behar dute, betiere bere helburuen bidetik.

Baina ezinbestekoa da, halaber, taldeek herriko egoeran, plangintzan eta erabakietan parte hartzea eta eragitea. Herrian kultura arloan era-

baki garrantzitsuak hartzen dira, eta ia beti herriko taldeak kontuan hartu gabe. Udala-taldeak harremana ez da gehiegi landu; dirua eskatu eta dirua eman, horretara mugatu da harremana. Eta hori aldatzea ere bada Uztarria Kultur Koordinadoraren helburua.

Izan ere, taldeak ez dira erakunde pribatuak; herriaren alde etekin ekonomikorik atera gabe lanean diharduten taldeak baizik. Horregatik, Azpeitiko Udalak euren lana errekonozitu egin behar du, euren iritzia entzun, eta baloratu.

Horregatik diogu ezinbestekoa dela herriko taldeek herriko kultur egoeran, plangintzan eta erabakietan parte hartzea. Adibidez, kultur etxeak non egon behar duen, nola funtzionatu behar duen, zer izaera izan behar duen eta abar ez dute Azpeitiko Udaleko ordezkariak bakarrik erabaki behar. Antolatuta eta lanean diharduten taldeek, eta, oro har herriak, badute zeresana gai horretan eta antzekoetan. Azpiegitura horiek denak (kultur etxea, antzokia, gazte-gunea...) taldeek erabiliko dituztelako, asko gainera. Udalak bere garaian udalbatza batean ahoz onartu zuen herriko taldeen eta Udalaren artean osatutako mahai batean hitz egingo zela kultur etxeaz. Orain arte, baina, ezer ez.

Uztarria Kultur Koordinadorako taldeek lanean jarraituko dute, betiere herria piztu nahian. Baina dena askoz errazagoa izango da euren lana errekonozitzen bada, eta kultur azpiegiturari eta herriko kulturari buruzko euren iritzia entzun eta baloratzen bada.

Uztarria Kultur Koordinadora

Herritarron esku

Zalantzarik gabe, bai. Udalak bere gain hartu beharko lituzke. Dena den, Udalak egingo duela edo ez duela esateak ez du gehiegi balio. Hori, neurri handi batean, herritarron esku dago. Guk, baldin eta hala nahi badugu, Udala presionatu beharko dugu, neurri hori har dezan. Eta nire ustez, EHNA ez da, Ximelake esaten duen bezala, alferrikako gauza bat. Herri honen eskubideak aldarrikatzeko tresna garrantzitsua izan daiteke. Baina hori bai: helburuak ez du izan behar EHNA tramitatzea eta ateratzea,

“ Behin

tramitatu eta gero, ahalik eta erabilera ofizialena eman behar dio erakunde horrek”

Naxi

DNlren ordezkari beharko dugu, zerbait lortu nahi bada.

Eme

Gakoa

Nik uste dut Eme-k esan duen horretan dagoela gakoa. Alegia, behin tramitatu eta gero, ahalik eta erabilera ofizialena eman behar dio tramitatu duen erakunde horrek —kasu honetan Azpeitiko Udalak, ezta?—. Nik ere uste dut Azpeitiko Udalak EHNA tramitatu beharko lukeela. Berez defenditzen omen dutena praktikan jartzen hasteko or-

dua ere badute zenbait alderdi ustez abertzalek, baina orain artekoa ikusita...

Naxi

Udalak ardura

Azpeitiarren zati handi baten nahi nagusi izanik, Udalak bere gain hartu beharko luke azpiegituraren ardura eta nahi hori asetzeko pausotan lagundu. Bada garaia EAJk bere abertzaletasunaren seinalearen bat agertzeko.

Martin

“ Azpeitiarren ez daukate herrian herritarrek sortutako kultura kontsumitzeko ohitura handirik”

“ Ezinbestekoa da taldeek herriko kultur egoeran, plangintzan eta erabakietan parte hartzea”

Uztarria

“ Ez daukate ez epaileek, ez fiskalek, ez idazkariek euskaraz ikasteko betebeharririk”

“ Normalkuntza lortzeko, besteak beste euskarak ofizial izan behar du Euskal Herri osoan”

Aitor Idiakez

hitzaldiye

Martxoaren 13an Aitor Idiakez, Abokatu Euskaldunen Sindikatuko kidea, EHEek deituta, *Euskara epaitegieta*n gaiaren inguruan aritu zen, I. Kulturaldiaren barnean. Hona hitzaldiko sorta bat:

EUSKARA EUSKAL HERRIKO EPAITEGIETAN

Euskal Herriko hiru eremu administratiboetan euskarak pairatzen duen egoera desberdina da:

- EAE: 1979ko Estatutuak 6. Artikuluan aurreikusten duen ofizialtasuna ez da praktikan bermatzen.

- Nafarroa: Foru Hobekuntzak eta *Ley del vascuence*-k ofizialtasuna osoki soilik zona euskaldunean aurreikusten du eta zati batean zona mistoan. Hala ere, jardunketa ez dago bermatua.

- Iparralde: Frantziako Gobernuak ez du Hizkuntza Gutxituen Europako karta sinatu eta horrela, orain arte bezala, hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da. Ondorioz, Iparraldeko euskaldunek epaitegieta itzultzaileen bidez aritzeko modua daukate soilik epaileen borondate *onaren* arabera. Gainera, XVI. mendeko lege baten arabera abokatuei epaitegieta euskaraz mintzatzea ukatzen zaie. Hori horrela da, ez epaileek, ez fiskalek, ez idazkariek —hiruak Frantziako Estatuaren eskuduntza dira— ez dutelako euskaraz ikasteko betebeharririk. (...)

Administrazioaren aldetik ez da benetako pausoak eman euskararen normalkuntzan:

- B.J.K.O.k hala ezarrita, epaileentzat, hauek beraien lerrundegian gora egiteko, eus-

kara ez da derrigorrezkoa; soilik meritu gisa har daiteke.

- Eusko Jaurlaritzak hartu berria du Justizia Administrazioako funtzionarien eskuduntza. Hala ere, ikusi besterik ez dago bertako plantilla dekretua, perfilen sistema ezartzen duen atala; Justizia Ministeritzak Auzitegi Konstituzionalaren aurrean errekurrituta dago. (...)

Horren aurrean, Abokatu Euskaldunen Sindikatukoak, EKBk, EHEk eta UEMAK *Normalkuntzarako Oinarriak* izeneko proposamenean, eman beharreko pausoak azaldu zituzten:

1. Legeak Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna aurreikusi behar du.

2. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen dituen zerbitzua eratu.

3. Epaitegiek herritarrek aukeratutako hizkuntza errespetatzea prozedura osoan.

4. Itzulpena ez da bidea, salbuespena baizik.

5. Funtzio publikoan euskalduntze mailakaturik baina sostengatua.

6. Premiazko irtenbideak bermatu (adibidez, ordezkari epaile euskaldunak).

Aitor Idiakez

(Abokatu Euskaldunen Sindikatuko kidea)

GAIA: ‘Komunikabideak Azpeitian’. Zergatik erosten dugu prentsa espainola? Zergatik ez dugu irakurtzen euskarazko prentsa? Herri abertzalea izanik, zerk hutsegiten du?...

EUSKAL ETA —BATIK BAT— EUSKARAZKO PRENTSA EROSTEKO ETA IRAKURTZEKO ARRAZOIAK

Azpeitiarren %87k badaki euskaraz. Azpeitiarren botoei esker, Udala abertzalea da oso-osorik. Hala ere, azpeitiarren %80k egunkari Espainia-zale bat erosten du egunero. Horra hor datu batzuk sarrera gisa. Eta honatx zenbait arrazoi hori aldatzeko:

KOHERENTZIA. Azpeitian abertzale batek zergatik erosten du egunero-egunero egunkari Espainia-zale bat? Ohiturak eragindako ilogikaren logika? Garbi dagoena da hori ez dela jokabide koherentea. Eta koherentzia eza beti da kezkatzekoa, norberaren pentsamoldearen eta jokabidearen arteko koherentzia hain garrantzitsua denean, hori baita beste guztiaren giltza.

MILITANTZIA. Euskal Herrian abertzale gisa jokatzeko militantzia eskatzen du, eta helburuak lortu nahi badira, proiektu abertzaleak lehenetsi egin behar dira, proiektu hauen zenbait produktu oraindik agian besteak baino kaskarragoak izan arren. Baina zerbait nahi duenak zerbait utzi behar du. Adibide bat: orain dela 40 bat urte ikastolak sortu zirenean, oso baldintza eskasetan sortu ziren (irakaslerik ez apenas, ikasle gutxi, hezkuntza materiala urri, lokalak batere duinak ez...), baina, hala ere, abertzaleek ikastolen alde egin zuten —Azpeitian, adibidez—, eta proiektu horrek aurrera egin du. Horregatik dauka indarra euskal eta euskarazko hezkuntzak. Zergatik ez da gauza bera gertatzen egunkari abertzaleekin, egunkari hauek kalitatekoak direnean gainera? Hezkuntza bezain garrantzitsua da informazioa; hain zuzen, gaur egun informazioaren gizartean bizi garela esaten da. Euskal Herriaren kasuan, helburuak eta proiektuak gauzatzeko militantzia erabakigarria den gizartean ere bizi gara.

FINANTZIAZIOA. Komunikabide bat erosten denean, edo komunikabide batean eskola edo iragarki bat sartzen denean, informazioa jasotzeaz edo eskola edota iragarkia zabaltzeaz gain, jendea ohartzen al da zer finantziatzen duen? Azpeitiko datuek ikara sortzen dute. Adibide bat: azpeitiarrok egunero *El Diario Vasco*-ren 1.397 ale erosten ditugu; urtean 505.714 ale. Urtean, beraz, Azpeitiak 78 milioi pezeta ematen dizkio DVri egunkariagatik (468.789 euro); erosle bakoitzak urtean 55.000 pezeta. Eskelak eta publizitatea ere kontuan hartuta, Azpeitia bezalako herri abertzale batek DV bezalako komunikabide Espainia-zale bati (ABC *España una, grande y libre*-ren etxe berekoa da: Grupo Correo Prensa Española) urtean 110 bat milioi pezeta ematen dizkio. Ikara! Horixe da abertzaleak bere buruari harrika egitea!

EUSKAL HERRIAREN IKUSPEGIA. Euskal Herrian egunkari Espainia-zaleak eta Frantzia-zaleak egunero Euskal Herria espainiarizten edota frantziartzten ari dira, Espainiako edota Frantziako gertaerak, ikurrak, albisteak, erreferentziak, jendea, jendillajea, kultura, *Operación Triunfo*-ak, kirolariak, selekzioak... normal-normal emanez, gure parte balira bezala. Gure kasuan, adibidez, DV azpeitiar irakurlêgo abertzalea espainolizatzeko saioan ari da etengabe, irakurle abertzale horiek *ohartu* gabe. Horren ondorioz sortzen den adibide bat: ia azpeitiar guztiei Burgos familiarragoa zaie Hazparne baino, Azpeitia Hazparnerekin anaituta egon arren. DVren azpeitiar irakurle abertzaleak —salbuespenak sal-

buespen—, DVri *esker* ez du behar bezala ikusten euskarak zer arazo eta eraso dituen, edo ez du ikusten Euskal Herriaren desegituraketaren larria, edo gizarte eragile abertzaleen informazioa eta proiektuak ez ditu modu zabalean eta tajuzkoan jasotzen, Espainia konstituzionalistaren aldeko mezu zuzenak eta subliminalak jasotzen ditu egunero... Azken batean, DVren irakurle azpeitiar abertzaleak ez dauka Euskal Herriaren behar bezalako ikuspegia, eta horrek euskal kontzientzia militantea hartzea eragozten dio. Txarrena da irakurle horrek uste duela DVk ez diola eragiten edo ez duela baldintzatzen. Eta, jakina, kontzientzia jakin bat izan ezean, kezkarik ez, elkartasunik ez, ekarpenik ez, mugimendurik ez, laguntzarik ez. Giza-komunitate lokartua da hori. Horrelako gizarte abertzalea nahi dute egunkari ez-abertzaleek; adibidez, horrelako Azpeitia. Egunkari abertzaleek bestelako ikuspegia eskaintzen dute, eta oso garrantzitsua da perspektiba hori edukitzea, lagungarri izan daitekeelako pausok emateko.

“Azpeitiak urtean 110 milioi pezeta ematen dizkio DVri; ikara sortzen du horrek”

“Euskal prentsak Euskal Herriaren ikuspegia eskaintzen du, eta garrantzitsua da”

BAKEA ETA JUSTIZIA. Egunkari laboralista Erresuma Batuzaleek (zentro-ekzkerrekoek) paper garrantzitsua jokatu dute azken urteetan Ipar Irlandako bake prozesuari begira, ez dutelako eduki konponbide politikoaren kontrako jarrerarik, eta prozesuak aurrera egin dezan lagundu dutelako. Ez da gauza bera gertatzen Euskal Herrian; Espainiako eta Frantziako estatuek —batik bat aurrenak— *gerra* tresna gisa erabiltzen dituzte *beren* egunkari guztiak, tartean Euskal Herrian argitaratzen direnak. Euskal Herriak benetako bakea eta justizia izateko bidean ez dute ezer aportatzen egunkari ez-abertzaleek, ez daudelako Euskal Herria bere buruaren jabe izatearen alde. Adibide bat: Ameriketako Estatu Batuetan, Idahoko Legebiltzarrak, aho batez, hauxe eskatu berri du: “Euskal Herrian indarkeria guztiak gelditzea, Euskal



Herriak autodeterminazio eskubidea izatea, eta Euskal Herrian bake prozesua abiatzea". Ba, DVk eta enparauek apenas eskaini dioten tarterik horri; egunkari abertzaleek bai, sakon eta zabala; Azpeitian ez da izango Idahoko berri handirik. Bestetik, ezin ahaztu DV-eta izan zirela Lizarra-Garaziren saboteatzailerik finenak. Gidaritza informatiboa eta komunikatiboa prentsa abertzaleak izango balu, euskal gizartearen konpromisoa handiagoa litzateke konponbide politikoari begira.

GEURE ESKU. Egunkari ez-abertzaleek ez gaituzte beren egunkariak erostera behartzen, guk geuk erosten ditugu, modu librean, haien aleak. Esandakoa: Azpeitian egunero DVren 1.397 ale erosten dira; egunkari abertzaleenak 350 inguru. Imajinatzen nolako Azpeitia genukeen kopuruak alderantzizkoak balira? Geuk daukagu hori aldatzeko giltza. Dena den, aldaketa erabakigarri horren bilakaerak —ahal den azkarren— euskarazko egunkari abertzalea(k) erostera eta irakurtzera jo beharko luke. Izan ere, berriro koherentzia aipatu behar: nola da posible irakurle abertzaleak hizkuntza espainola (edo frantsesa) zabaltzen, eta, beraz, legitimatzen eta bultzatzen duen euskal egunkaria finantzatzea? Utopia dena hau guztia? Horratx utopiari buruz idatzi izan dena: "Utopiaren eta progresoaren artean harremana dago, eta zentzuz betetako hitza da. Posible da utopia, bizitzaren motore da, eta errealtatea aldatzeko gogoia dago arrakastaren oinarrian".

Enekoitz Esnaola (kazetaria)

BULEGOETARAKO EKIPAMENDU OSOA



IKASI
MOBELTEKNICA

**MANPARAK
ZABIAK
LURRAK
ALTZARIAK
BULEGOETARAKO MATERIALA**

Zure lanordua arintzen ditugu



Juan Txiki poligonoa 11-12 zb - 20720 AZKOITIA
Tel.: 943 85 70 44 - Faxe: 943 85 36 33
Ikasi@mobelteknika.com

zer diyo?

JASANGARRITASUN MENTALA

Pozik gaude. 2002. urtea, Zuhaitzaren Urtea da Azpeitian. Ekitaldien hasiera, ordea, zinegotzi hau harri eta zur begira zela, hirigunean Urola ibaiaren ibilguan Udaleko langileak zuhaitzak ebakitzen ari ziren goiz batekin hasi zen. Ez zuten bat bera utzi. Aurrez eskatua eta azaldua nuen Udalean, era guztietara, zuhaitz horiek bere horretan utz zitzaten; azken batean, ibaian berezko eboluzio naturala gertatzen uztea (garbiketa eta ebakitze selektiboak ezik). Horrez gain, behin baino gehiagotan eskatua nuen —gizagaixoa ni— hainbat aktatan jaso zedila eskari hori, gertatu dena gerta ez zedin, hain zuzen. Alferrik. Haserresutan, kexa agertu nion Udaleko arduradunik gorenari eta berriro protesta hau aktan jasorazten dut. Toki-administrazioan arazo endemikoa da ingurumenaren aldagaia euren egitura eta funtzionamenduaren baitan txertatu ezina.

Baina ekitaldi nagusia falta zen. Martxoaren 2an egun ederra zabaldu zuen. Azpeitian ospatzen zen Zuhaitz Eguna eta hemen egin behar zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Sailak, Azpeitiko Udalaren Ingurumen Batzordearekin batera antolatzen zuen ekitaldi ofiziala. Zuhaitzak aldatzeko aukeratutako lekua Ingurugiro Etxearen inguruak eta hurbil dagoen Urola ibaiertzak ziren. Egin zitzairen gonbidapenari Azpeitiko eta Azkoitiko zazpi ikastetxeen erantzuna ezin hobea izan zen: 170 neska-mutil (10-12 urte artekoak) baino gehiago agertu ziren, eta 22 begiraleren laguntzaz, 250 zuhaitz inguru landatu zituzten (lizarrak, sahatsak, haltzak eta zumarak). Ikusi egin behar zer gogo eta ilusio jarri zituzten. Tamalez, ezin nuen sinetsi hilaren 6ko goizean nire begiek ikusten zutena, zuhaitzak ez baitzeuden; jabetza pribatuko sektore batean ez zeuden. Jabetza publikokoa den ibaiertzatian, berriz, han jarraitzen zuten zutik (begibistako arrazoiengatik) han aldatutako zuhaitzek (gutxienak). Gainera, asmo txarrez eta gaiztakeriaz betetako ekintza batean, falta ziren, ez zeuden inon. Datuak argi eta garbiak dira, ez dute beste azalpenik behar. Agian, jendeak ekimen hauetarako borondate ona izan beharko lukeela pentsatuta, hasieratik okerra egin genuen Udalaren aldetik, gutxienez giza legez bada ere, ez baitzen horretaz hitz egin lursail pribatuaren jabeekin.

“Ezin nuen sinetsi hilaren 6ko goizean nire begiek ikusten zutena, zuhaitzak ez baitzeuden”

“Reynoutria Japonica kanpoko espezie batek kolonizatu du ibaiertza”

“Ibaiak hondakindegia bihurtu ditugu eta konponbide zaila duten kanalizazio basatiak egin zaizkie”

Bada gertakari bat, gutxienez ere deigarria eta bitxia. Nik 38 urte ditut eta ezaguera dudaretik ibaiertz hori egoera ber-berean ezagutu dut, baina alde nabari batekin, ingurumenaren ikuspuntutik. Reynoutria Japonica izen zientifikoa duen kanpoko espezie batek, bertakoa ez den batek, kolonizatu du ibaiertza eta gaur egun hura da jaun eta jabe bazterretan (martin arrantzalea bera ere desagertarazi du), eta inguruko baratzeetara ere sartzen hasi da. Espezie honek harrapatu ditu ja Gipuzkoako ibaiertzak eta erreketara ere sartzen hasia da. Ulertu ezin dudana da hamarkada luzeetan ezer egin ez izana espezie honen zabalkunde aurre egiteko (aitzitik, zuhaixka horiek inausi eta zatiak *in situ* botatzeak efektu biderkatzailea izan du) eta zuhaitz autoktonoek hiru egun soilik iraun izana. Edonola ere, Aldundiak egindako garbiketa lanak eta ondoren zuhaitz autoktonoak (doan) aldatzeak halako balio erantsi bat ematen zien lursail horiei.

SENTSIBILITATE FALTA. Baina bada beste kontu bat, are garrantzitsuagoa, sentsibiltate-falta ezin larriagoa agertzen duena. Zer gertatzen da gaztetxoekin ingurumen arloan egin den kontzientziazio-lanarekin? Zer galdetuko diote beren buruari eurek aldatutako zuhaitzak desagertu egin direla ikustean? Eta okerrean, zein izango da erantzuna?

Industrializatutako gizarteak, XX. mendean, ibaiei bizkarra emanda bizi izan dira. Ibaiak hondakindegia huts bihurtu ditugu eta dagoneko konponbide zaila duten kanalizazio basatiak egin zaizkie. Ibaia ez da ura soilik. Ibai-ekosistema osatzen dute ibaiaren ibilguak eta ibaiertzak, baina baita bi leku horiekin elkarrenginean dagoen, eta han bizi den, fauna eta landaredia ere bai. Ahozabalik uzten gaituen pagadi batek adinako balioa du ingurune honek. Urola ibaiko uraren kalitateak izugarritzko gorakada egin du, hobera. Hala ere, ibaietako habitataren berreskurapen integrala lortzeko ibaiertzak berriro landareztatzea eskatzen du eta presak kentzea (benetako oztopo baitira) edota arrain-espezieen migrazio-mugimenduak erraztuko dituzten pasabideak jartzea. Badira zenbait proiektu zehatz ibaiertzak berriro landareztatzeko eta presak eraisteko, Azpeititik Lasara, Loiolatik Azkoitira eta Ibai-Eder ibaian (Urolaren ibaiadarrik nagusia). Loiolatik Azpeitira arteko ibaiaren zatian (hirigunea barne) bada jada ingurumen ikuspuntutik berreskuratzeko proiektu bat, Azpeitiko Udalak berak eskaturik egina.

(iritzi osoa, www.uztarria.com-en)

Aitor Aranguren

(Udaleko Ingurumen batzordeburua. EA.)

ATERBEA BERRITZEKO ZER?

Xoxoteko aterbea berritzeko lanei ekingo zaie, baina diru eta lan asko beharko da. Zer egin berriro irekitzeko?

Idoia Mendizabal

Hil honetan Xoxoteko aterbea berritzeko lanei helduko die Lagun Onak Mendi Bazkunak. 2001eko irailetik itxita dago aterbea, Urolako Osasun Publikoak egindako bisitaldian "aterbe bezala erabiltzeko nahiko baliabiderik ez" zuelako.

• **PROIEKTU BERRIA?** Lagun Onak Mendi Bazkunak eraberritze proiektu bat eginga du dagoeneko. Proiektu honek eraikina bera kanpotik handitu gabe, barrutik eraldatzea jasotzen du: "Eraikina dagoen

inguruaren berezitasunagatik eta aberastasun ekologiko handiko ingurua delako, proiektua gauzatzeko orduan kontuan izan den irizpide nagusia egungo eraikina handitu gabe berau egokitzea izan da, nahiz eta horretarako egungo ohe kopurua murriztu beharra izan".

• **ZER ALDAKETA LITUZKE?** Taldeentzako logela, lehen bezala, goiko solairuan mantenduko da, 25 oherekin. Beheko solairuan egingo diren aldaketen artean, aterbeko zaindariarentzako logela eta komuna eta erabiltzaileentzat bi dutxa, bi komun eta bi konketa jarriko dira.

• **ZENBATEKO AURREKONTUA?** Lagun Onak-ek eginda duen proiektuari aurre egiteko 174.899 euroko aurrekontua eginga du (29.100.745 peztea).

• **NOLA LAGUNDU DIRUZ?** Dagoeneko Lagun Onak M.B.ko kideek Udalera eta Foru Aldundira jo dute aterbearen eraberritze lanei aurre egiteko diru laguntza eske.

Xoxoteko aterbea itxi zenean. / UZTARRIA



Oraindik ez dute erantzunik jaso. Herriko zenbait enpresatan ere jo dute atea, eta erantzunak jasotzen ari dira. Baina herritarren laguntza ere beharrezkoa izango dela uste dute, eta kontu korronte bat ireki dute Euskadiko Kutxan: 3035 0020 58 0200050654.

• **NOLA LAGUNDU BESTELA?** Aterbea 1984an ireki zen, eta eraikitze lanak herritarren eskulanaren ondorioz egin ziren. Eraberritze honetan ere Lagun Onak-ek herritarrak lanean laguntzeko jakineko egun batzuk jartzeko asmoa du. •

Daukagun **kultura maite** dugulako,
euskal eskola nazionalaren bidetik
mundu zabalera.

ikasberri

A Z P E I T I K O I K A S T O L A

loiola etorbidea, 26 - 20730 azpeitia - tel 943 15 12 46 - faxa 943 15 17 76 - ikasberri@ikastola.net

udal erabakiyek

Azpeitia-Azkoitia Udaltalde 21ek argazki lehiaketa antolatu du

Agenda 21aren esparruan Azpeitia-Azkoitia Udaltalde 21ek *Gure inguruari begirada bat* argazki lehiaketa antolatu du, Tokiko Agenda 21aren ezarpen prozesua "sustatu eta zabaltu" nahian. Argazki lehiaketara argazkiak bidaltzeko epea urriaren 18a artekoa da eta bertara aurkeztutako argazkien gaia, berriz, "Agenda 21aren kontzeptua eta filosofiarekin zerikusia duen guztia" da. Hau da, ingurumenarekin lotutako gaiak izan behar-

ko dute; hala nola, ingurumen naturala, hiri-ingurunea, garraioa, ura, hondakinak, energia, industria, zarata... alde positiboa zein negatiboa azalduz beti ere, antolatzaileek esan dute-nez. Argazkien eremu geografikoa, berriz, Azpeitia eta Azkoitikoa da. Aurkezteko erari dagokionez, 35mmko koloretako diapositibak eta manipulazio digitalik gabekoak izan behar-ko dute. Bestalde, argazkiak zein urte sasoitan aterata eta non aterata dauden ere adierazi beharko da. Oinarriei buruz zehaztasun gehiago jakiteko, 943 151713 telefono zenbakira deitu beharko da eta Izaskun Zeziagagatik galdetu.

Gorka Knörr

gurien...

EA-ko idazkari nagusia eta Gasteizko legebiltzarkidea

«Azpeitira etorri nintzen lehen aldia euskaraz tutik ez nekien»

Nerea Aranburu / Azpeitiko Eusko Alkartasunak hainbat hitzaldi sorta antolatu ditu. Haietako bat martxoaren 2an izan zen, Aitonengan, eta hizlari Gorka Knörr, EAKo idazkari nagusi eta Gasteizko legebiltzarkidea aritu zen.

• Nolatan Azpeitian hitzaldia ematen?

Hau hasiera baino ez da. Oker ez banago, beste hitzaldi batzuk ere izango dira, horietako bat Angeles Iztueta Hezkuntza Sailburuak emango duena. Beste toki askotan bezala, hemen ere hitzaldiak antolatzen dira, gaur egungo gaiak aztertzeko eta eztabaidatzeko. Ondoren, solasalditxo bat egin ohi da, eta eguneko gauzak hizpide izaten dira.

• Lehen aldia al da Azpeitira etorri zarena?

Ez. Azkena orain urtebete etorriko nintzen. Lehen aldiz orain 32 urte izan nintzen.. Anekdotak gisa, zera: orduan euskaraz hitz egiten tutik ere ez nekien. Niretzat esanahi berezia du Azpeitira etortzeak. Zezenetan ere nahiko sarritan izaten naiz. Esan beharra daukat beti oso ondo hartua izan naizela.

• Besteak beste, Europaz hitz egin duzu hitzaldian.

Gaur egungo gaia delako Europar aurrera eramaten ari diren prozesua. Ezin dugu ukatu Europa guretzako erreferentzia puntu bat dela. Une honetan 15 estatuz osaturik dago eta hemendik urte batzuetara 27 izatea aurreikusten da. Prozesu horren helburuetako bat Europa nolakoa izango den antolatzean datza, eta antolaketa horretan gure herriak ere esanahi handia dauka. •

“Europaz hitz egin dut, Europaren antolaketan gure herriak esanahi handia daukalako”



Josu Bereziartua hamahirugarrenez zortzimilako batera


Nerea Uranga / Martxoaren 20an abiatu zen Josu Bereziartua Himalayara —hamahirugarrenez zortzimilako batera—, Makaluko (8.463 metro) espedizioa kide delako Juanito Oiarzabal, Juan Vallejo, Juan Carlos Tamayo eta Ferran Latorrerekin batera. *Al filo de lo imposible* Espainiako telebista kateko programarako dokumentala grabatuko dute, eta gailurrera igotzea dute helburu, mendebaldeko ertzetik. Bereziartuaren ustez, Makaluko bide hori ez da erraza: "Zailtasun handiko bidea da. Eskalada konprometituko bide bezala ezagutzen da, eta hiru mila metroko sokak jarriko ditugu". Beheko kanpamendura apirilaren 10erako iristea aurreikusten dute, eta tontorrerako ahalegina maiatzaren 15a eta 30a bitartean egitea. •

JOSU BEREZIARTUAREN ESPEDIZIOAK

Urtea	Mendia	Kokalekua
1980	Caraz I (6.025)	Peruko Andeak
1986	Annapurna II (7.936)	Nepaleko Himalaya
1986	Aconcagua (6.960)	Argentinako Andeak
1987	Zeharraldia Andetan	Venezuelako Andeak
1988	Yalung Kang (8.505)	Nepaleko Himalaya
1989	Nun (7.138)	Indiako Himalaya
1990	Wollemly-Cook	Australia-Zeelanda Berria
1990	Everest (8.848)	Nepaleko Himalaya
1991	Aconcagua (6.960)	Argentinako Andeak
1991	Everest (8.848)	Nepaleko Himalaya
1992	Cho Oyu (8.201)	Nepaleko Himalaya
1992	Everest (8.848)	Nepaleko Himalaya
1993	Gasherbrum I (8.068)	Karakorum
1994	K-2 (8.611)	Karakorum
1996	Ama Dablam (6.812)	Nepaleko Himalaya
1996	Shisha Pangma (8.027)	Tibeteko Himalaya
1998-1999	Manaslu (8.163)	Nepaleko Himalaya
1999	Dhaulagiri (8.167)	Nepaleko Himalaya
2000	Everest (8.848)	Nepaleko Himalaya
2000	Takla Makan	Txina
2001	Elbruz (5.642)	Errusia (Kaukasoa)
2001	Everest (8.848)	Tibeteko Himalaya
2002	Makalu (8.463)	Nepaleko Himalaya

Erdi kaleko etxeak aztertuko dira

Udalaren aginduz arkitektoek da-tozen hilabeteotan Erdi kaleko etxebizitzaren egoera aztertuko dute. Azterketa honen helburua etxebizitzaren egiturak egoera onean dauden aztertzea da, batez ere egurrezko egiturak dituztenetan.



Gizartekintza Sailak ezinduentzako laguntzak eskatzeko epea ireki du

Urtero bezala ezinduentzako laguntzak eskatzeko epea zabaldu da. Eska daitezkeen laguntzak hauek dira: etxerako laguntza, etxean hartzea, laguntza teknikoetarako aholkularitza eta diru laguntza, laguntza tekniko eta bestelako laguntzak. Iaz laguntza eskaria egin eta laguntzarik jaso ez zutenek, aurtengo deialdian berriz ere laguntza eskaria egiteko aukera izango dute. Informazio gehiagorako Gizartekintzara zuzendu beharko da.

pertsonajie




Diego Garcia

Diego Garcia azkoitiar korrikalaria azkoitiarren eta azpeitiarren oroimenean izan zen martxoaren bukaeran, bera hil zela lehen urteurrena gogoratuz —iazko martxoaren 31n hil zen, Azkoitia-Azpeitia maratoi erdirako entrenatzen ari zela Alejandro Gomezekin batera—. Diego Garciaren omenez

Loiolatik Munategira bitartean, bera hil zen lekuan hain justu, bere irudia duen eskultura bat jarri zen martxoaren 30ean; irudiak Diego Garciaren beraren neurriak ditu eta Xebax Larrañaga eskulturgile azkoitiarrak egin du. Arratsaldean, Diegoren izena duen zirkuituan, Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia korritu zen. Gizon herrikoi eta ezagun hura herritarren oroimenean izango da. ●

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Apirilaren 15a (astelehena)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Alde Zaharreko Merkarien Elkarteko erosketa bonoa.

AURREKO ARGAZKIYE...



...ETA SOLUZIUYE




IRABAZLIE: Mari Jose Segurola Kerejeta



Mari Jose Segurola izan da 27. garailea. Jone eta Maikar estetika zentroan zerbitzu bat irabazi du, baita Uztarriaren elastikoa ere. Argazkian, Mari Jose —ezkerrean— eta Jone ageri dira.

“Euskal Herriak duen arazorik handiena entrenatzeko leku egoki falta da. Jende asko lasterketatik lasterketara entrenatzen da”

Jon Agirre
(auto-gidaria)



Jon Agirre. / GAZTETXULO

“Sexua oso present duten sentimenduen inguruko eleberri bat da ‘Ortzadarra sutan’; hegan dabilzan istorioak harrapatu ditut”

Fernando Morillo
(idazlea)

Leire Ostolaza

Erniarraitz lehiaketan bigarren

«Finaleko saioan gora-behera handiekin aritu nintzen, eta ez nuen uste bigarren izango nintzenik»

Nerea Uranga / Leire Ostolazak I. Erniarraitz Bertsolari Gazteen Lehiaketan bigarren bukatu du. Azkoitia izan zen kanporaketan egindako saioarekin sailkatu zen finalerako. Eta finalean, Soreasun, bi azpeitiar izan ziren: Jokin Uranga eta biak.

● **Lehenengo Erniarraitz Bertsolari Gazteen lehiaketa nola joan dela esango zenuke?**

Txapelketa oso ondo joan da. Horrelako bailara batean hamasei bertsolari gazte txapelketan parte hartzeko prest izatea oso ona dela iruditzen zait. Gainera, nahiko maila ona eman dugula iruditzen zait, eta polita joan da. Publiko aldetik, berriz, oso erantzun ona izan du, nahiz eta finalera, egualdiagatik edo —dotorea zegoe-lako—, ez zen hainbeste jende joan. Kanporaketako saioetan jende asko ibili da eta oso giro ona egon da.

● **Eta zu zeu gustura ibili al zara?**

Ni neu kanporaketako saioan askoz gus-turago jardun nuen. Finalean, neu gora-behera handiekin aritu nintzen eta oso urduri. Eta nik ez nuen uste bigarren izango nintzenik; nik uste nuen bigarrena Jokin Uranga izango zela, egia esanda. Harritu egin nintzen emaitzarekin, baina hala erabaki baldin bazen, halaxe hartu beharko. ●



Leire Ostolaza, bigarren sariarekin. / N. URANGA

Nahikarik irabazi du txapela

● **Nahikari Gabilondo zarautzarrak irabazi du I. Erniarraitz Bertsolari Gazteen Lehiaketa, baita bertso onenaren saria ere. Bigarren, berriz, Leire Ostolazak bukatu zuen. Kanporaketan jende ugari ibili zen, baina finalean ez zen Soreasu bete. Bestetik, Erniarraitzen zozketako zenbakiak: Pastorkuan birentzako afaria 0565 zenbakiarentzat da (ordezkoa 1081) eta diskoa 0674 zenbakidun txartelarentzat da (0664 da ordezkoa).**

Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatuan aukera handia

URBISTONDO MARGOAK

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Lore Sortak
Koroak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu

Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA



AMAIÁ TABERNA

Pintxo bereziak eta giro jatorra



Urritzkina, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13

Baite-ren bazkideen batzar nagusia hilaren 27an

Apirilaren 27an egingo da Baite Euskara Elkarteko bazkideen lehen batzar nagusia, Aitonengan, 12:00etan. Martxoaren 2an, berriz, bazkideen arteko zozketak egiteari ekin zion bazkide-laguntzaileei esker. Bi egin ditu; lehenengoan Jexu Agirre suertatu zen Sarea Informatikak emandako sariaren jabe, eta bigarren zozketan Joxe Mari Galarragak jaso zuen Santi Lazkano Kirolak emandako saria.

Azpeitiarrak ere baziren Bartzelonan

Martxoaren 14 eta 15ean Bartzelonan egin zen Europako Batasuneko gobernu eta estatuburuaren kontseilua, eta ELA sindikatuko azpeitiarrak hara hurbildu ziren, "langileon eta herrion Europaren alde" lemapean. LABeko batzuk ere izan ziren.



ELAkoak Bartzelonan. / ELA



NEREA URANGA

IRUDIA APURTUTA. Inauterietan Elegante Egunean Santiago kalean sokamurrari buruzko irudia jarri zen, Javier Iraetak egina, baina martxoaren 17an apurtuta azaldu zen. Sokamutilla bere lekutik aterata eta etzanda, eta soka apurtuta. Udaltzaingoak udaletxearen gordailuan jaso zuen.

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



Arana, 5
AZPEITIA

ERLOJU
KONPONKETAK
Tel.: 943 81 47 12



Otamendi
Bilvi Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



ostadar optika

OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

Maitane &
ESTETIKA

Estetika


. Depilazioak
. Argizari epela
. Argizari hotza
. Azaleko tratamenduak
. Makilaia
. Solariuma

Masaia

. Kiromasaia
. Kirol masaia
. Drenai linpintikoa

Olazko Amaren Plaza, 9 - 6 c ♦ Tfnoa: 943 81 43 66

ZORTZI GAZTE EPAIKETARA BIDEAN



Gazteak epaitegiko zitazioarekin. / NEREA URANGA

Elegante Eguneko gertaeren ondorioz, zortzi gazte auziperatu dituzte; "muntaia juridikoa da hau", diote

Nerea Uranga

I nauterietan Elegante Egunean Ustarri tabernan eta Egaña kafetegian, gazte lokalaren aldarrikapena zelamedio, gazte batzuen eta Jose Mari Bastida alkatearen artean izandako liskarren ondorioz, J.U., E.I., O.L., I.U., M.L., A.O., X.Z. eta I.S. gazteak auziperatuak izango dira, "agintariari atentatua" akusaziopean. Akusazio honek, bi eta lau

urte bitarteko kartzela zigorra jasotzen du.

Gazteek martxoaren 12an deklaratu zuten Azpeitiko lehen epaitegiko epailearen aurrean. Gazteek akusazio denak ukatu eta "ez delitorik ez faltarik" ez dutela onartuko esan dute. "Gure helburu bakarra egun hartako gertakariak argitzea da, eta garbi dugu, benetako justizia egiten bada (esperantzaz handirik ez badugu ere), nor izango den erantzun beharko duena", diote gazteek. "Lehenengo muntaia mediatiko lotsagarria, orain muntaia juridiko are lotsagarriagoan" bihurtu dela salatu dute.

Gertakarien hurrengo egunean, auziperatuta dauden bi gaztek salaketak sartu zituzten Azkoitiko Ertzain-etxean, zaurituak izan zirelako. Batek "alkateak ezpain lehertu izana" salatu zuen eta besteak "alkatearekin batera zegoen norbaitek buruan jo" eta zazpi puntuko zauria egin ziola. Uneotan, salaketa horiek zertan diren berririk ez dute jaso bi gazteek.

Uztarria alkatearengana ere joan honen guztiaren inguruan galdezka, baina ez du erantzunik jaso. ●

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

J.M. Iparraguirre B.H.I.
Santa Barbara Bidea z/g
Urretxu 20700
Tel./Faxa: 943 721413-721403
jmiparraguirre@edunet.es

Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D ereduetan

TITULAZIOA

- Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

IRAUPENA

- 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

LANBIDE ETORKIZUNAK

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Kontsulta pribatueta
- Zaharren egoitzetan
- Hortz-kliniketan laguntzailea
- Gaixoen zaintza

IZENA EMATEA

- Maiatzaren 1etik 24a arte



Azpeitiko dendariak, zuen ondoan, zuen zerbitzura

CICLOS BENI

Loiolabide Tel. 150629

LARRAÑAGA KIROLAK

Arana, 3 Tel. 811365

ODRIOZOLA HARATEGIA

Arana, 14 Tel. 811015

EGOKI JANARIAK

Barrenetxe, 8 Tel.815490

ZABALA HARATEGIA

Arrabal, 8 Tel.811671

NEREA MERTZERIA

Arrabala Tel.812862

ZOKOA ANDREEN JANTZIA

Arrabala Tel.815056

ARKUPE KIOSKOA

En. Nagusia Tel.815207

AGIRRE OPARIDENDA

Erdi Kale, 1 Tel.811325

FURUNDARENA OINETAKOAK

Erdi Kale, 9 Tel.811143

URIA ALFONBRAK

Erdi Kale, 29 Tel.812337

AMENABAR JANARIAK

Etxe-alai, 3 Tel.150065

SAN SEBASTIAN HARATEGIA

Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

EGAÑA GOZOTEGIA

Goiko Kale, 10 Tel.811885

JAKA JANARIAK

Harzubia, 19 Tel.816549

ANDONI FRUITUDENDA

Harzubia, 29 Tel.812502

AITZAKI KIROLAK

J.A. Agirre, 4 Tel.150738

OTOLA KINKILADENDA

J.A. Agirre, 7 Tel.811366

SANTI LAZKANO KIROLAK

J. Artetxe, 1 Tel.811650

BALENCIAGA

J. Artetxe, 10 Tel.813400

ERROTAUNDI OKINDEGIA

Euskal Herria

MARTZALA OINETAKOAK

Olazko Amaren Plaza

BELOKI HARATEGIA

J. Artetxe, 21 Tel.151392

ARROSPIDE OINETAKOAK

Loiolabide, 1 Tel. 811914

EMAITZ LURRINDENDA

J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

ORDULARI BITXIDENDA

J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

ARANTXA HAUR JANTZIAK

J.A. Artetxe, 8 Tel.812429

BABESA GAZTE MODA

Urbitate, 9 Tel.151369

IRIS MERTZERIA

La Salbe, 11 Tel.813298

IRATXO JOSTAILUAK

La Salbe, 24 Tel.150530

ZALDIKO LURRINDENDA

La Salbe, 15 Tel.151275

ICIAR ILEAPAINDEGIA

Loiolabide, 19 Tel.810217

ARADI KIROLAK

Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

ZURI BELTZ JANTZIAK

Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

MATXIN ZESTOAK

Pablo VI, 39 Tel.810116

UKABI ORDENAGAILUA

La Salbe, 39 Tel.150101

LUR LORA DENDA

Santiago, 11 Tel.150085

URKE ARGAZKIAK

Urbitate, 4 Tel.151287

UROLA BIDAI AGENTZIA

Arrabal Tel.150804

M. GRAL . SEGUROS

Pablo VI, 5 Tel.151649

COOP. SUKALDEAK

Arana, 7 Tel.812309

URBISTONDO MARGOAK

La Salbe, 35 Tel.815781

SOINU ELEKTROGAILUAK

Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

DUNPI JOSTAILUAK

Erdi kalea, 3 Tel.151890

Foru ibilbidea, 3 Tel.813969

MAITASUNAGATIK EGITEN DITUGUNAK



Norbaitek maite gaituela sentitzea, norbaitek gustuko gaituela jakitea, gauzarik garrantzitsuenetakoa da bizitza txatxu honetan. Maitasunagatik egiten ditugu gauzarik harrigarrienak, xelebrekeriak, erokeriak; gauzarik onenak ere, maitasunagatik egiten ditugu. Badakit edozein ezkontza arruntetan edozein apaizek botako lukeen sermoitik gertu nabilela; maitasunean zaila da ezer berririk predikatzea. Beraz, istorio bat kontatuko dizuet.

Mikelek 18 urte dauzka. Nire laguna da, orain arte behintzat. Ez da denbora asko Alaznerekin ibiltzen hasi dela (espero dut albiste honekin inor interesaturik ez mintzea). Haien *noviazgoa* normala da: Mikelek kontatzen zidan neska zenbat gustatzen zitzaion, harengana hurbiltzeko emandako pauso baldarrak, neskaren zalantzak, gauari lapurtutako musuak, maitasunari dagozkion buruhaustea denak. Azkenean baiezkoea etorri zen, eta baiezkoarekin gozotasuna, irteerak, Donostian zine-ikusteak eta abar.

Baina orain jakin dut istorioa borobiltzen duen gertaera berezia: Mikel, maitasun hori lortzearen truke egindako promesa bat dela medio, Kizkitzako ermitara joan da oinez Urrestillatik. Egun euritsu batean, bi ordu eta erdi behar izan zituen Mandubia gaineko tontorrera iristeko. Niri esan balidate halakoren maitasuna lortzeko ibilaldi hori egin beharko nukeela, han geldituko zen bai ermita eta bai neska. Orain, Alazneren irribarrea ezagututa... ez dakit; kalean zoaztela, inoiz ikusi duzuen irribarrerik politena daukan neska bat ikusten baduzue, horixe da Alazne.

Promesa hauek egitea antigoaleko kontua da: gerra zibilean askok egin zituzten, eta oraintsu arte, ebakuntza txarrak egitera zihoan jendeak ere bai. Horregatik da harri-garria Mikelena, eta era berean polita. Jendea bikote bila telebistara joaten den garaiotan, Mikel Kizkitzara igo da, avemaria bat errezatu, eta jaitsi da bere maitearen ondora.

Honek beste istorio bat gogorarazi dit,



Bizkaiko gizon batek ezkontzeko pasatu zituen ibilerak agertzen dituen. Urrestillako mutilzahar batzuk Bilbora joan ziren, maitasuna ez baina haren ordezkorik finena diru-truke ematen duten emakume batzuk bisitatzera. Sarreran nortasun agiria utzi behar zuten, han sartzen zen edozein gizon bezala. Dastatu beharrekoak dastatuta, atera ziren eta hartu zuen bakoitzak atezainak emandako karneta. Haietako bat basomutila zen.

Egunak pasatu eta norbait telefonoz deika hasi zen basomutilaren baserrira. Gizon bat. Mutila beti kanpoan, amak ez zion gauza handirik ulertzen bizkaitar hari, ez nor demontre zen, ez zer arraio nahi zuen. Ezkondu egin behar zuela eta bere semeak ez dakit zer esaten zion. Semea ere lasai, lanean.

Asteak zeramatzan gizon hark peskizan. Bizpahiru aldiz ere etorri behar izan zuen honuntza. Azkenean, behintzat, asko kostata, aurkitu zuen bere basomutil hori, Ai-zarna aldeko mendietan uste dut. Estualdi ederrarekin zetorren gizona. Bilboko etxe haren irteeran, nortasun agiriak nahastu egin zituen atezainak: gizon honek basomutilarena zeukan, eta honek, patrikan zimurtuta, gizon harena. Gizon honek, ordea, aurki ezkondu egin behar zuen, eta karnetik gabe salduta zegoen. Hona, maitasunagatik, ia Gipuzkoako mendi guztiak pasatu zituen bizkaitarra, basomutil lasai baten atzetik.

Ohitura zaharrak berrituta, edo kontu zaharrak esanda, maitasuna beti maitasun: falta denean nahigabetu egiten gaitu, eta agertzen denean, berriz, erotu.

HILEKO GALDERA. Takolo estreina, gero sokamuturra, orain Diego Garcia, nor izango da estatua bihurtuko duten hurrengo azpeitiarra?

Batez beste uztarria.com-era egunero 106 lagun sartzen dira

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre (Azpeitia).
Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria:

www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.800 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA




Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



Sarrerak orri nagusira. / JOSU AZPILLAGA

Uztarriak, uztarria.com webguneko urtarilaren 1etik otsailaren 27a arteko datuak bildu ditu. Honako datu hauek izan dira azterketa horren emaitzak:

• **SARRERAK ORRI NAGUSIRA.** 106 aldiz erakusten du azala uztarria.com-ek egunero. Oso-oso kopuru polita da. Internet munduan gertatu ohi den bezala, astegunetan batez besteko hau igo egiten da (127ra). Aldiz, asteburuetan behera egiten du (50era).

• **ERAKUTSITAKO ORRIAK.** Epe ho-

netan guztira erakutsitako orri kopurua, 47.556 orrikoa da. Eguneko, 820 orri batez beste.

• **ORRI BISITATUENAK.** Orri bisitatuena *inkestie* eta *eztabaidie* dira. Baina albiste batzuk 144, 121 eta 117 aldiz izan dira ikusiak. Honek erakusten du atal dinamikoak direla bisitatuena.

• **POSTA ZERRENDIA.** 96 lagun daude izena emanda uztarria.com-eko posta zerrendan. Baina 400dik gora lagun sartu dira azalpen-orrietara.

albiste txikiyek

Uztarria Udalarekin bildu da

Uztarria Kultur Koordinadorak, Komunikazio Proiektua (herri aldizkaria, webgunea eta liburuxka biografikoak) eta Udalarik eskatutako diru laguntzen inguruan hitz egiteko, bilera egin du Udaleko hiru alderdietako ordezkariarekin, hirurekin batera, bi urteko hitzarmena egin asmoz. Uztarriak Udalarik eskatutako diru laguntzak honokoak dira: herri aldizkarirako 18.030,36 euro, webgunerako 6.010,12 euro eta liburuxka bakoitzeko 1.202,02 euro. Oro-tara 25.242,5 euro. Udaleko ordezkari bakoitza bere alderdiaren baitan proiektua aztertzeotan gelditu zen. Uztarriak lehenbailehen egin nahi du hitzarmen berria.

Bazkideei kobratu zaie urteko kuota

Uztarriako bazkideei 2002ko kuota—21,04 euro— helbideratu zaie, Uztartzen Euskara Elkar-tearen izenean.

552 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste gutzia bete)

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

KODE POSTALA:

TELEFONOA(K):

POSTA ELEKTRONIKOA:

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2. ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

NUARBE, 25 URTE SOKATIRAN

Nuarbe Sokatira taldeak aurten bete ditu 25 urte. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi berezi antolatu ditu; hala nola, *Guinness* errekorrean sartzeko erronka, liburuaren aurkezpena eta bazkaria



Beti ezagutu izan da sokatira Nuarbeko herrian; festatan beti egoten zen ezkondu eta solteroan arteko tiraldiren bat", diote Nuarbe Sokatira Taldekoek, sokatirak han duen tradizioaz eta taldearen sorreraz galdetzean. Ohitura "beti" egon arren, taldea orain dela mende laurdena sortu zen, "herriko" gazte batzuk elkartzean, eta Nuarbe 1978. urteko urrian plazaratu zen lehen aldiz txapelketa nagusi batean; Euskal Herriko Txapelketan, hain zuzen ere. Taldea nahiko osatua zegoela, Agurainen (Araba) jokatu zen txapelketa hura, eta hantxe irabazi zuen aurreneko txapela Nuarbek. Aurretik beste ekitaldiren batean parte hartu izan zuten, ordea. "Azpeitian *Bai Euskarari*-ren ekitaldi bat antolatu zuten eta ea bertan parte hartzea nahi al genuen eskatu ziguten. Orduan atera zen lehen aldiz gure sokatira taldea jende aurrera".

Garai haietan Nuarbeko taldeaz gain, Euskal Herrian beste bi talde indartsu ere bazeuden: Aramaio eta Mutriku. Bi taldeok, urte batzuk lehenago atzerriara ere joan ziren txapelketatan parte hartzeko.

Beraz, sokatira mundua gehiago ezagutzen zutenez, Nuarbekoak bi talde haiekin jarri ziren harremanetan. "Beste taldeekin hitz egiten hasi ginen eta hor ikusi genuen kanpora, atzerriara joateko aukerak ere bazeudela". 1980. urtean atera zen atzerriara Nuarbeko taldea. Hain justu, urte hartan lur gaineko txapelketa egiten hasi ziren Euskal Herrian, eta Mutrikuko taldeak bi kategoritan irabazi zuen eta atzerrian bietan ezin zuenez parte hartu, bigarren postuan gelditu zen Nuarbeko taldeak, aukera izan zuen atzerriara joateko, Suitzara alegia. Baina haien poza berehala bilakatuko zen tristuran, Suitzara joatean hura beste mundu bat zela ohartu zirelako. "Hango taldeek urte asko zeramatzen lur gainean tiratzen eta guk lehen aldiz parte hartzean, lur jota gelditu ginen". Suitzatan egin zen txapelketa hartan hamalau talde aritu ziren lehian eta Nuarbek hamabigarren postua lortu zuen. "Hala ere, sailkapena baino okerrago nola gelditu ginen izan zen. Fisikoki txikituta bukatu zuten han parte hartu zuten tiralariek. Jasotako egurra hain gogorra izan zen, hurrengo egunean eskailerak atzeraka jaitsi behar izan zituztela. *Nobatada* antzeko bat izan zen".

HEMEN ETA ATZERRIAN. Atzerriko taldeen eta hemengoen arteko desberdintasunak nabarmenak izan ziren. Alde batetik, denbora askoan jardun behar zen sokari ti-

raka. Kanpoan jokatzeko diren txapelketetan saioak luzeagoak dira, hiruzpalau ordukoak gutxi gora-behera. "Saio luze horien lehen ondorioz, eskuko azal dena harrotuta bukatzen zuten". Beste ezberdintasuna sokarena zen: "Han eta hemen erabiltzen den soka ez da bera eta horrek ere eragina du". Harrezkero, urtero joan izan dira Nuarbekoak atzerriko txapelketaren batera, 1982an izan ezik; urte hartan Hego Afrikan antolatu zen torneo baina arazoak egon zirenez, ez zen inor joan. Normalean, kanpoko txapelketak irailean izaten dira eta hilabete horretan ateratzen dira atzerriara. Hala eta guztiz ere, diotenez, "iraileko txapelketa ofizialez gain, uda partean ere beste torneo batzuk egoten dira eta horietan noiz edo noiz parte hartu izan dugu".

Hasiera haietatik gaur arte hainbat jende berri igaro da sokatira taldetik. "Jendea aurkitzeko orduan, Nuarbek inoiz ez du arazorik izan. Hasiera haietan egia da taldea osatzeko beti justu samar ibiltzen ginela. Lehen urteetan Nuarbe taldea hamalau bat lagunek osatzen zuten. Beste urte batzuetan jende gehiago ibili izan da; adibidez 1990. hamarkadan, taldea 21 tiralaria izatera iritsi baitzen. Orokorrean esan beharra dago Nuarbeko gazte gehienek ezagutu eta probatu dutela sokatira mundua, batzuek besteak baino gehiago iraun dute, baina probatu ia denak egin dute". Une hauetan, zortzi gazte dabilta ikasten, "baina jende berria aurkitzea oso zaila dago. Gaur egun jendeak kirola asko egiten du baina konpromisorik gabe. Kirol guztietan dago arazoa, jende faltaren arazoa, eta ez sokatira munduan bakarrik". Jende falta zergatik den aztertzean, kirolaren gogortasuna aipatzen dute Nuarbekoek: "Egia da sokatira kirol gogorra ►►



» dena, eta oraindik eta gogorrago hasieratik jartzen diren helburuak bete behar badira". Orain arte, eta normalean behintzat, hasten den jende berria familiako ohitura segitzearen edota koadrilako norbait ibiltzen delako izaten da.

NUARBEO HERRITARRAK. Urte hauetan zehar, Nuarbek beti erakutsi izan dio sokatira taldeari berotasuna eta esker ona. "Lehen urteetan berotasun handia izaten zen. Hasiera haietan, gainera, *pike* handiak egoten ziren beste taldeekin, bai Landetakoekin eta baita Urrestillakoekin ere". Txapelketaren batean parte hartu behar bazuten, herritik autobusak ateratzen ziren tiraldia ikustera joateko. "Alde batetik normala zen jendeak horrelako harrera ona izatea, zerbait berria zelako, *pikeak* zeudelako beste auzoekin eta abar. Gure ustez, orduan jendeak askoz gehiago sentitzen zuen sokatira".

Sokatira denboraldiak zazpi hilabeteko iraupena du; otsailean hasi eta irailean amaitzen da. Prestaketa lanak abendu aldera hasten dira. "Lehendabizi fisikoki prestatzen gara, hilabete eta erdiz gutxi gora-behera, eta ondoren, martxoaren bukaera aldera, soka entrenatzen gara". Urte batzuetan biak batera egin izan dituzte; hau da, ariketa fisikoak eta soka batera. Azken urteetan, ordea, lehenik fisikoki prestatu eta gero hasi ohi dira soka entrenatzen. "Asko aldatu da hasierako eta oraingo entrenatzeko modua. Garai haietan, ez genekien seguru zer nahi genuen". Aldaketak handiak izan omen dira, bai postura aldetik baita teknika aldetik ere. "Denborarekin gauzak ikasten joan gara. Orain, adibidez, badakigu tiraldi motzak prestatzeko zer egin behar dugun, luzeak badira zein ariketa egin behar ditugun".

Hasierako urteetan dena zen ezjankintasuna. Inoren erreferentziarik ere ez zuten eta denbora aurrera igaro ahala, gauza asko ikasten joan dira. Nuarbe Sokatira Taldea sortu zen urte haietan entrenamenduak eliz azpiko "zumetarioan" egiten zituzten. Lur gainean hasi aurretik, eliz azpian dagoen zoruaren entrenatzen zen taldea, bi urtez gutxi gora-behera. 1980an, lur gaineko txapelketari ekin zitzaionean, sistema berri batean pentsatu zuten. "Gaur egun Nuarbeko urtegia dagoen leku horretan, han presagailu batean polea bat jarri genuen". Polea horretaz baliatzen ziren entrenatzeko. Gero estalpe moduko zerbait egin zuten eta han egin zituen sokatira taldeak lur gaineko lehen entrenamenduak.

Sokatira mundua beti izan da kirol ezaguna Euskal Herrian, baina baita Euskal Herriko kanpo ere. Atzerrian sokatira oso eza-

Patxi Gurrutxaga

Nuarbe Sokatira taldeko kidea

"Mutil kozkorra nintzenean, taldea eliz azpian entrenatzen zen eta ni ikustera joaten nintzen"

Patxi Gurrutxagak urte dezente daramatza sokatira munduan, eta dagoeneko ondo ezagutzen ditu kirolaren gora-beherak.

• Noiz eta nolatan hasi zinen sokatiran?

Taldea 1978. urtean sortu bazen, ni bi urte beranduago hasi nintzen. Herrian betidanik ezagutu izan da sokatiraren mundua, txiki-txikitik ikusi izan ditugu hemen, eliza azpian entrenatzen. Familian ere anaia gehienak sokatiran ibili dira eta gauza hauen guztien eraginez, probatzea pentsatu nuen. Ni mutil kozkorra nintzenean, orduan taldea eliz azpian entrenatzen zen eta ni ikustera joaten nintzen. Elkarri tiraka jartzen zituzten eta batek irabazten ez zuenean, orduan pisua pixka bat berdintzeko norbait sartzen zuten. Horrela hasten zen jendea mundu hau pixka bat gehiago ezagutzen.

• Gogorra al da sokatira beste kirolekin alderatuz?

Nik esango nuke kirol guztien antzekoa dela. Baliteke pixka bat gogorragoa izatea, baina hasieran jartzen diren helburuak lortu nahi badira, horrek ahalegin eta sakrifizioa eskatzen ditu. Egia da fisikoki ondo prestatuta egotea eskatzen duela kirol honek.


• Nola entrenatzen zara denboraldia prestatzeko?

Sokatira denboraldiak zazpi hilabete iraun arren, aurretik derrigorrez prestatuta egon behar da. Hori horrela izanik, aurretik hasten gara prestatzen. Prestatze hori bakoitzak ikusten du nola egin. Denboraldia hastean komeni da fisikoki ondo egotea eta bakoitzak bere kasa egiten ditu ariketak; korrika, gimnasia joan...

• Sokatiralaria izanik, nola ikusten duzu etorkizuna?

Oso etorkizun beltza ikusten dut. Une hauetan sokatira egoera zailean aurkitzen da eta pentsatu beharra dago zer egin.

“Oso etorkizun beltza ikusten dut. Une hauetan sokatira egoera oso zailean aurkitzen da eta pentsatu beharra dago zer egin”





LEHEN ALDIZ ATZERRIAN. 1980an lehen aldiz atzerriko txapelketa batean parte hartzeko aukera izan zuen taldeak, Suitzan. Nuarbekoek 12. postuarekin konformatu behar izan zuten.



EUSKADIKO TXAPELDUN. 1992. urteko uztailaren 19an Beasainen antolatu zen Euskadiko Txapelketa, 640 kilotan aurreneko postua eskuratu zuten nuarbetarrek.



EUROPAKO TXAPELKETA. 1995an Getxon (Bizkaia) jokatu zen Europako Txapelketa. Nazio mailan, 560 kilotan lehen postua lortu zuen Nuarbe Sokatira Taldeak.



ATZERRIKO TIRALDI BAT. 1991. urtetik aurrera, eta zortzi urtez segidan, Europako eta munduko txapeldun izatera iritsi zen tiralari nuarbertarrak. Palmares polita osatu dute.

guna eta ondo prestatua dagoen kirola da. "Hemen oso urte onak izan ditu sokatirak baina beti talde gutxiarekin". Taldekoen esanetan, "atzerri joatean, nazio batzuk oso talde onak dituzte, hala nola, Suitzak, Irlandak eta Ingalaterrak". Hango eta hemengo sokatira maila parekatzean, taldeko kideen hitzetan, sokatira atzerrian goraka ez omen doa baina maila mantendu egiten dute. Horren zergatia aipatzerakoan, "bizitzeko oso modu desberdina" dutela diote. "Haiek lasaitasun handiagoa dute; hitz batean esanda, gu baino denbora gehiago dute".

Euskal Herrian sokatira beti herri kirolei lotua egon da, hemengo ohitura zaharren erakusketa bat bezala. Hori dela eta, nuarbetarrak beti saiatu dira sokatirak beste mundu eta histori bat duela erakusten. "Sokatirak bere mundu propioa dauka aspalditik, eta gu hori erakusten saiatu gara". Garai batean sokatira olinpiar kirola izatera ere heldu zen; atletismo sailean sartzen zen.

Nuarberen kasuan sokatira taldea beti mutilez osatua egon da. Egia da saiakera-

EGITARAUA

● APIRILAK 28: NUARBETARREN EGUNA

- **8:30etan:** Gosaria, baratzuri zopa.
- Ondoren kalean era guztietako otarrak egiten ariko dira. Otargintza gaiarekin lotuta erakusketa. *Guinness* errekorretan sartzeko otarra erraldoia egiteko erronka.

- **14:30etan:** Herri bazkaria.

● MAIATZAK 26: TRINIDADE EGUNA

- Nuarbeko plaza txapelez estaltzeko erronka saiakera.

● UZTAILAREN AZKEN ASTEAN

- Nazioarteko Txapelketa.

● LIBURUAREN AURKEZPENEA

ren batzuk egin izan dituztela nesken taldea sortzeko, baina sekula ez da aurrera ateratu proposamena. Orain dela urte batzuk egon zen neska taldea eta tiraldiren bat ere egin zuten. "Nuarben belaunaldi asko mutilenak egon dira. Ez dakigu zergatik baina

hala gertatu zen". Biologikoki Nuarben urte zehatz batzuetan askoz ere mutil gehiago izan dira neskak baino. Azpeitia aldean ere egon zen neska koadrila bat sokatira taldea sortzeko baina azkenean asmoa atzera bota zuten.

25 urte hauetako balantzea egitean "izugarri ona" izan dela diote taldeko kideak. Inoiz ez zuten pentsatuko hasiera haietan iritsi diren lekura helduko zirenik. Talde bezala txapelketa guztietan parte hartzeko aukera izan dute, hainbat txapel eta trofeo ere irabazi ditu Nuarbek. Japonian izan ziren azken gertakariak direla medio, une hauetan sokatiraren etorkizuna kinka larrian dago. "Gaur egun arazo politikoak direl- eta gauzak oso beltz daude". Orain arte, hemengo talde denak atzerriko torneotan parte hartzeko aukera izan dute. "Ate horiek ixten badizkigute, sokatira egoera larrian geratuko da". Oraindik gauzak erabaki gabe daude baina "gauzak horrela badaude, asko pentsatu eta hitz egin beharko du gu sokatiraren etorkizunaz". ●

Nerea Uranga

LURPEKO APARKALEKUAK EGINGO DIRA

Azpeitiko Udalak Enparan kalearen eta Perez Arregi plazaren artean lurpeko aparkalekuak egiteko asmoa du; bilera batzuk egin dira jada

Azpeitiko Udalak Enparan kale barrenetik Perez Arregi plaza ingurua arte hartuko lukeen autoentzako lurpeko aparkalekuaren proiektua aztertzen ari da, Uztarriak jakin duenez. Alde Zaharreko Merkatarien eta Zaharra Berri Alde Zaharreko bizilagunen arteko bilera batean Jose Mari Bastida Azpeitiko alkateak egitasmo honen berri eman zien haiei. Udalak oraindik aztertzen ari da, baina "ziurrenik" lurpeko aparkalekuak bi pisuko izango da, eta sarrera Enparan kaletik izango luke. Oraindik, ordea, Udalak aipatutako elkarteei ez die zehaztu zer-nolako erabilpena izango lukeen lurpeko aparkalekuak: publikoa eta pribatua, bietakoa, edota publikoa baino ez den izango.

Autoentzako "aparkaleku faltak" askotan "kezkatu" ditu Alde Zaharreko merkataria eta bizilagunak. Alkateari azken batzarrean bizilagunek azalduta-

ko kezketako bat, TAO edo ordaindutako aparkalekuen (Plazan, Perez Arregi Plazan eta azoka plaza atzean) kontuarekin lotutakoa izan zen. "Udalak bizilagunentzako txartel bat edo jartzea eskatzen dugu, ordaindutakoak diren aparkaleku hauetan aparkatu ahal izateko,

beste herri batzuetan egin ohi den bezala", alde zaharreko etxebizitza askok ez baitute gertu aparkalekurik.

ETXEA BOTATA. lazko abenduan bota ziren Enparan beheko etxeak, eta Udalak han babes ofizialeko etxebizitzak egin-

go dituela aurreratu zuen. Baina, lehenago Eliz kalekoak egingo dira. "Laster Eliz kaleko babes ofizialeko etxebizitzaren proiektuaren berri emango dugu. Enparan kalekoak, berriz, denbora gehiago emango digute", azaldu du Azpeitia Lantzenek. ●



Aparkalekuak egin nahi diren lekua. / NEREA URANGA



Enparan behealde, lehen, etxeak bota aurretik. / NEREA URANGA



Enparan behealde, orain, etxeak botata. / NEREA URANGA

beloki
 Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
 AZKOITIA
 Jose Arrese, 21 Tel.: 943 151392
 AZPEITIA



EDUARDO BERASATEGUI

Harategi eta Zerritegia
 Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
 Urrut. 943 81 14 98



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
 TEL. 81 60 25
 ETXEOA 15 00 03
 AZPEITIA



**Harategia
 Odriozola**

Harategi
 Especializatua

Arana Kalea, 14
 Urrut.: 943 81 1015



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4
 TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO
 HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
 TFONOA.: 943 811671

EUSKO LABEL



KALITATEA

datue

2 epaile daude Azpeitiko Epaitegian eta biak erdaldunak dira, ez dakite euskaraz. Herritarren %83a berriz euskalduna da. EAEko 190 epaileetatik %7a da euskalduna, hau da 15 epaile.

dato historikue

1953 ean Azpeitiko OESA enpresak Donostiako Artzain Oneko organo neoklasikoa egin zuen. Orain berritu beharra dauka.

esaldiye

“Saia gaitezen hizkuntza normalizatzen eta normalizatuko dugu Herria”

Juan Carlos Etxegoien ‘Xamar’
(irakaslea eta idazlea)

esaerie

“Zure irribarrea jango nuke”

Asier Sudupe
(Azpeitiko AEKren losintxa lehiaketako irabazlea)

liburutik ttak

“Euskararen munduak ere badu legenda. EGA azterketan batean, idatzia bikain pasatuta, orrialde bat eman diote sarreran, ordu erdian presatuta dezan gero ahoz eman beharreko laburpena. Urduri dago. ‘Zer, hasten naiz?’ –ausartu da galdetzeraz. ‘Ez, amaitu duzu’ –erantzun diote mahaiaren bestaldetik”.

‘Hitzak eta giltzak’. Iñigo Aranbarri. Alberdania argitaletxea. 2001. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



GARAI BATEKO GAUEKO BIZITZA

Gaeuan ito nahi izaten ditugu askotan egunak sortutako buruhauste eta nahigabeak. Mundu berri baten oinarriak sortzen ere, ahalagindu ohi gara behin baino gehiagotan, eta inolako presarik gabe, gainera. Berdin dio eguna argitzean guztia berdina aurkituta ere... Alaitasuna besarkatzeko prest izaten gara bultzada handirik gabe eta horregatik jaialdirik txikienean murgiltzen gara. Gure herriko kale eta tabernetan, sekulako giroa!

Gure aurrekoek ere sentitu zuten antzeko zerbait, baina oztopoak aurkituko zituzten seguruenik nahiak gauez askatzeko nolabait.

Azpeitiar agintariak, 1573. urteko abuztuan agindu zuten, San Miguel eguna bitartean, gaueko hamarretatik aurrera kalean ibiltzea debekatzea, baldin eta beharrezko eginkizun bat izan ezik. Egun horretatik maiatza bitarte-

an, bestalde, gaueko bederatzietarako herritarrek etxeratu beharko zuten. Agindua alde batera uzten zuenak, hiru errealeko isuna eta lau egunetako kartzela zuen. Gautxoriak, kaio-lara bada eta txintirik egin gabe, gainera!

Aurrez, 1562. urtean, debekaturik zuten baita, lihoa lantzen zuten emakumeek elkarturik eta etxeetako atarietan lanean aritzea ilunabarrean, gizonezkoak inguratzen zitzaizkienez txantxetan hasteko eta ondorioak nabaritutako zituztenez. Gogoan zuten agindu hori ematean agintariak, herriko neskak batek nolatan zauritu zuen sastagai batez, hurbildu zitzaion giza-seme bat. Intentzio onak zituena seguruenik...

Zinegotzi baten mozio bat egoki hartuta erabaki zuten azpeitiar agintariak 1919an, urtean 365 pezetako zerga ezartzea tabernetan ibili ohi ziren organiloentzat, biztanleen lasaitasun-

garai bateko Azpeitiye ...Eusebi Goenagak kontatua

Neskameen bizitza

Urteetan neskame lanak egindakoa da Eusebi Goenaga, beti herritik kanpo hain zuzen, ezkondu zen arte

Leire Larrañaga

Oraindik emakumearen berdintasunaren alde lanean ari garen honetan, nesken-tzako lan aukerak zabaldu badira ere, garai batean gure amonek lan aukera bakarra edo bakarrenetakoa zuten neskametza. Izan ere, Eusebi Goenagak azaldu digunez, “orduan ez zen fabriketan nesken-tzako lanik, eta neskame joan behar izaten ginen lana egingo bage-nu”. Gazte-gaztetatik etxea utzi eta besteren etxeetara joaten ziren lanera. “Aitak lehenago ere bidali nahi izan ninduen, baina 11 urterekin joan nintzen neskame. Ez edozein lekura gainera, baserri batera. Denetik egin behar izan nuen han. Etxeko lanak, eta baserrikoak”. Gaur eguneko neskametzaren aldean garai hartakoa gogorra zen, “gaur egun neskame joatea gurekin konparatuta *señora* joatea da. Gurea asto-lana zen, dena eskuz egiten genuen, ez zen makinarik. Lurra lau hankan jarri

eta zepilo latzakin fregatu, gainera razional-mendu garaian bakoitzari xaboi puska txiki bat tokatzen zitzaigun eta nik ez dakit zer zuen xaboi hark baina aurpegia ere erre egiten zuen. Jai ere hamabostean behin izaten genuen, eta ez egun osoa 16:00etatik 19:00-etara. Behin nekatuta nengoela-eta lo-kuluxkan gelditu nintzen etxean eta etxeakoandreak ikusi ninduen lanean jarri ninduen. Onena aldegitte zen”.

Herrian bertan baziren neskamea zuten familiak. Eusebi bera kanpoan ibili zen; Legazpian, Tolosan eta Hernanin. Nagusi ezberdinak ezagutu zituen, beraz, eta etxe guztietan ere lan egin behar bazen, “*quiero y no puedokoak*” okerrenak zirela dio Eusebik. “Izan nuen nagusi bat zerbait zeukana edo uste zuena, eta harentzako lan egitea ez zen ederra. Arrandegira bi buelta egin behar izaten nituen; lehenengo arrainaren prezioa galdetzeko eta hurrengo arraina erosteko. Telefonoa bazu-



Primeran pasätzen!

● **ZERGA.** 1919an, zinegotzi batek aurkeztutako mozioa onartu eta 365 pezetako zerga ezarri zitzairen tabernetan ibiltzen ziren organiloiei

na apurtzen zutelako eta herriaren deskreditu bihurtzen zirelako. Horrela desagertu nahi ziren gaueko bizitza ederra mozturik.

Gaur egun tabernetan aurki dezakegun zaratak, zoratuko lituzke seguruenik agintari haiek guztiak.

xapo euskerie

Aitor Arruti

Arantzazu Azpillaga

(itzultzaileak)

EUSKALKIAK IDATZIZ (III)

Euskalkien eta azpieskalkien lehengo esparruak berreskuratzeko kezka eta interesa azaldu izan du **Koldo Zuazok**. *Deba* ibarreko *euskeria* liburuan euskalkian idazteko arau batzuk zehaztuz:

- Hitzak osorik eta aparte idazten ahalegindu behar da.

a. Bokal arteko *b, d, g, r* sarri galtzen dira ahozkoan. Idatzian, ostera, agertu egin ohi dira. *Gera* idatzi behar da, eta ez *gea*. Salbuespenak badira: *aitu* eta *ba* (*aditu* eta *bada*-ren aldaeratzat).

b. Ahozkoan bokalak jan egiten ditugu: *ekarri ber du*, ... Idatzian aldaera osoak erabiltzea komeni da geure hizkerara egokituta: **beher**.

c. Deklinabideko morfema batzuk ere laburtu egiten dira: *launén* etxie. Horrelakoe-tan ere aldaera osoak erabiltzea komeni da: *lagunaren*.

- Ortografian, euskara batuaren idazteko legeak bete behar dira, ahozkoan betetzen ez badira ere: *h, s/z, tz/ts*. Hala ere, badira salbuespenak:

a. Bustidura: *ñ, ll, x, tx, tt, dd*. Arrotzak eta barre-gariak direlako gure artean *mina, oilo, aita* (*miñe, oillue, aitte* idaztea hobe).

b. Azentuaren bidez bereizi ohi ditugu hitz batzuk: **lagu-nék** esan dit /**lagúnek** ikusi ditut; zu zera **néskatan** politena /horrek **neskatán** egiñ omen du. Azentuak ezartzea erabaki zen Eibarren, eta oso lagungarria deritzot.

- Esanahi bereko hitz edo aditzak ditugunetan, zaharrena eta Euskal Herrian zabalduena hobetsi behar da.



Etxeke emakumeak. / IMANOL ELIASÉN ARTXIBATEGIA

“Orduan ez zen fabriketan neskentzako lanik, eta neskame joan behar”

Eusebi Goenaga



ten etxean baina ni atzera eta aurrera ibiltzea nahiago. Neskameak mesprezua besterik ez genuen jasotzen. Hernanin jan ez nuen besteekin egiten, su ondora bidaltzen ninduen etxe-koandreak eta han txokoan bakar-bakarrik jaten nuen. Behin *señoritoaren* urtebetetzea zen, eta tarta banatu zutenean niretzako ez zen han platerik. *Señoritoak* berak berea eman eta etxean goialdera igo zen. Han joan zen etxe-koandrea atzetik, eta nik ez dakit zer esan zion *señoritoak* baina negarrez etorri zen”.

Zestoako bainuetxean ere zerbitzari bezala aritu zen hiruzpalau udan, eta han ezagutu zituen lehen garbigailu eta plantxa elektrikoa. Ezkondutakoan utzi zion neskametzari; orduan bere etxea gobernatu behar izan zuen. “Beste-rentzako egiten nituenak neurean egin behar ezkondutakoan. Gero alpargata eta aterkiak josten ere jardun nuen diruz osatuko bagina”.

osasune Julian Bereziartua (medikua)



KOKOA, TROPIKOKO FRUTA ZAPORETSUA

Txikitan, herrietako festetan, begien aurrean, salmenta postuetan jartzen zizkiguten gutiziak gogoratzen dizkigu.

Itxura oboidea eta kolore marroiko azal gogorra duen fruta honek barruan duen mami zuria *copra* ere deitzen zaio; horrez gain, fruitaren erdigunea likidoz beteta aurkitzen dugu, *koko-uraz*. Likido hau ona litzateke, izerdiaren bitartez galtzen duguna ordezkatzeko. Gatz mineralaz, bitaminaz eta azukrez oso aberatsa da edari isotoniko hau.

Egunero kontsumitzea, gutizi garestiegia litzake; dituen gaitasunak aprobetxatzeko, fruta zabaldu ahala edan beharrekoa baita.

Mamitik irina eta olio ere lortzen dira. Kokoaren irina abereak elikatzeko erabili ohi da, batez ere behiak; pertsonak kontsumitzen dugun esnea aberasten du eta... Kokoaren bi-

rindutako mamia, gozogintzan ere erabiltzen da eta askorentzat oso gustu onekoa da.

Olio asko lortzen da kokoaren mamitik; kosmetikan erabiltzen da, belzteko kremak eta txanpuak egiteko. Frutarena izan arren, bere koipeak aberearenak bezalako ondorioak ditu: odoleko kolesterola gehitzen du. Beraz, orokorrean, bere kontsumoa ez dago gehiegi gomendatzerik, batez ere zirkulazio arazoak dituzten pertsonen. %65 koipe du, gehiena kolesterola. Horregatik, noizean behin, gutizia bezala, kokoa jatea ondo dago, baina ez egutero...!

● **KOKO OLIOA.** Olio asko lortzen da kokoaren mamitik; kosmetikan krema eta txanpuak egiteko erabiltzen da

hedabidiek



‘BALEIKE’-K AZKEN ALEA KALERATU DU

Zumaiako *Baleike herri aldizkariak* 100. eta azken alea kaleratu du. Erabaki honen berri azken alean eman dute Baleikekoek. Orain dela zortzi urte sortu zen Baleike hila-betekaria Gazte Batzordearen babesean, baina azkenaldian aldizkaria babesten zuen elkarerik ez zegoen. Bi arrazoi izan dituzte taldekideek erabaki hori hartzeko: “Batetik sendotasun falta eta bestetik, herritarren inplikazio urria”. Dena den, azkenaldian aldizkarian lanean jardun duten taldekideek aurrera begira beste proiektu bat abiatzeko asmoa dute.

gertuko pasadizue

PIRINIOTARA LEHENENGO IRTEERA

● **AIRE BERRIA MENDI TALDEAN:** “1964 urtera arte Lagun Onak Mendi Elkartek ez zuen antolatu bidaia Pirinioetara. Miguel Boni-ren lehendakaritza pean lehendabizi, eta Luis Aizpuru *Etxahun*, Pako Larrañaga *Txikiye* eta Joxe Arozena *Atxa-renean* ondoren, taldeak aire berriak hartu zituen; erronka berriei aurre egin zien, helburu berriak markatu zituen, eta garrantzitsuena: jendea erakarri zuen mendi taldera”.

‘Lagun Onak M.B.- 50. urteurrena’ liburutik hartua. Egileak J. L. Aizpuru eta Enekoitz Esnaola. 1996.



AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)



AZKOITIA - AZPEITIA BHI

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 22 65
Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net



AMERIKARRAK AZPEITIAN LANEAN

Ameriketako lurralde ezberdinetatik etorritakoak badira Azpeitian; arrazoi ezberdinengatik etorri eta gelditu direnak

egiteko asmotan dira. Batzuk, Azpeitian lan bat zutela etorri ziren, beste batzuek, berriz, negozio propio bat ireki eta horri heldu diote, eta beste batzuk lanik ezin aurkitu eta lan bila dabiltza. Egoera ezberdinak denak ere.

Uztarrria Azpeitian bizi diren amerikar batzuekin egon da berriketan, haien herrian lanbide izan duten lanez eta lan egiteko modu ezberdinez mintzatu da: Stephanie Thurman eta Amy Lucke AEBkoak (Amerikako Estatu Batuak) dira, Regla Araceli Hernandez kubatarra da eta Guillermina Escudero mexikarra. Laurak enak ere inguruabar ezberdinek bultzatuta heldu dira Azpeitira, eta laurak ere bertan bizitzeko eta lan egiteko asmoak azaldu dituzte.

Nerea Uranga

Ameriketara joan nintzen... dio euskal kanta ezagun batek. Hala da, lanera garai batean euskaldun ugari joanak dira Ameriketako lurralde ezberdinetara lanera, bizitzera; eta bertan egin dute bizimodua. Ameriketara joan bai, etorri ere seguruenik etorriko zen

garai haietan amerikarrik Euskal Herrira, baita Azpeitira ere. Baina, gaur egun lurralde ezberdinen arteko jendearen joan-etorriak ugariak dira: lanerako, bizimodua aldatzeko, abentura...

Azpeitian gaur egun bizi diren amerikarrek egoera desberdinen ondorioz heldu dira bertara. Batzuek hemen antolatu dute bizimodua eta, oraingoz, Azpeitian bizitzeko asmotan dira gehienak. Bertan lana

Stephanie Thurman

Boise (Idaho, Ameriketako Estatu Batuak)

“Idahon erlijio asko daude eta ez da hainbeste zubi eta jai egiten”

Azpeitira lehenengo aldiz 1985ean etorri zen bere herriko dantza taldearekin dantza egitera. Gero 1987an etorri zen, Donostiara, euskara ikastera. Horren ondorioz iritsi zen Azpeitira.

● Euskara ikastera etorri eta bertan gelditu zinen bizitzen...

Euskarako irakaslea Coloradokoa zen eta erabaki zuen ingeles akademia irekitzea. Orduan galdetu zidan ea Azpeitian lan egin nahi nuen eta harrezkero Azpeitian ari naiz ingeles akademian lanean.

● Idahon, zure estatuan, beste lanik egin gozenuen, ezta?

Han gaztetatik hasten da lanean. Lan mota asko egin ditut: argazki estudio batean, janari-azkarreko leku batean, bulego batean... 16 urterekin hasi nintzen unibertsitatean eta bitartean ere lanean aritu nintzen.

● Lanean azkarrago hasten al da han?

Ikasten ari zarela hasten da. Ordukako lanetan-eta aukera handiagoa dago Idahon.

● Eta lan egiteko moduan alderik ba al dago?

Idahon ez dago tailerrik, ez dago industriarik. Han normalean jendeak zerbitzuetan egiten du lana; beraz, industrialan han nola lan egiten den ezagutza handirik ez daukat. Hemen bezala, jai eguna dela-eta zubirik ez dago. Abuztuan ere bi asteko oporrak egiten ditu jendeak eta kito. Han erlijio ezberdin asko daudenez, ez da hainbeste zubi eta jai egiten; hemen ez bezala, alegia.

● Ingeles akademia noiz ireki zenuten?

1988an hasi nintzen bertan irakasle eta 1991n geuk hartu genuen akademia.



Regla Araceli Hernandez

Habana (Kuba)



“Hemen oso-oso zaila egin zait lanpostu bat aurkitzea”

Industri injinerua da eta Kuban, bertan bizi zen Aitor Alberdi azpeitiarra ezagutu eta biek bizimoduz aldatzea erabaki eta Azpeitira bizitzera etorri ziren iazko urrian.

● Zertan ari zinen lanean Kuban?

Farmaziako laborategi batean kalitateko gerente bezala egiten nuen lana.

● Nolakoa da han lan egiteko modua?

Zortzi orduko laneguna dugu, gero borondatezko orduak ditugu, hemen ordu extrak bezala ezagutzen direnak. Baina han, lana kontzientziarekin egiten da; hau da, lan horrekin nazioari aportazio bat egiten da eta ez da lan-saririk jasotzen.

● Hemen lanean ari al zara?

Hemen oso-oso zaila egin zait lanpostu bat aurkitzea, hemen ez baita nahikoa lanerako gogoia izatea. Etorkinarentzat oso zaila gertatzen da. Ate guztiak jo ditut: INEMera joan naiz, curriculumak bidali di-

tut Azkoitiko, Azpeitiko, Elgoibarko eta Eibarko enpresa guztietara, baina bi edo hiru bakarrik izan dira gai erantzuteko. Lijatzen egon naiz orain arte tailer batean, baina orain, lana jaitsi egin omen dela eta, berriro kalean nago. Une hauetan nire ikasketen homologazioa lortzeko ahaleginetan ari naiz, azken batean gainditzeko eta gizarte honetara moldatzeko, bertan bizimodua egiteko erabakia hartu baitut. Izugarria da nola lan egiten duten euskaldunek: oso gogor eta oso ondo. Horregatik dago hain lan gutxi, produkzio handia baitago eta gogor lan egiten baita; pixka bat lasaiago lan egin balitzateke...

● Euskara ikasten ari zara AEKn...

Uste dut hizkuntza eragozpena gainditu egin behar dela, bizimodua egiteko eta lanerako. Euskaraz galdetzen didatenean erantzuteko gai izan nahi nuke.

Guillermina Escudero

Tancochin (Mexiko)

“Lan astuna dena, uste dut edozein lekutan astuna dela”

Hiru urte pasatxo dira Guillermina Mexikotik Urrestillara etorri zela. Hasieran harrituta gelditu omen zen Urrestillara iritsita-koan: zinerik ez, *burgerrik* ez, supermerkatu-rik ez...

● Nolatan Mexikotik Urrestillara?

Ni fabrika batean ari nintzen lanean, fabrikako burua *Txikuritarra* da eta hemen haren ama zaintzea proposatu zidan. Proposamena onartu eta etorri egin nintzen. Hemen gustura nago. Gelditu egin naiz.

● Mexikon zer lan egin izan dituzu?

Batik bat fabrika egin dut lan, sukaldeko ontziak egiten, enbotelladora batean... Baita editorial batean ere aritu izan naiz, *culebroien* aldizkarian eta ipuin kontuan. Jostun bezala ere lana egin izan dut.

● Lan egiteko eran alderik ba al dago han eta hemen?

Mexikon batez ere fabrika egin izan dut lan. Hemen, berriz, fabrikako lana ez dut ezagutzen. Lan astuna dena, uste dut edozein lekutan astuna dela.

● Bisitaldirik egin al duzu Mexikora?

Ez, oraindik ez naiz itzuli hara. Paperak ez dituzun bitartean ezin izaten da estatutik irten. Oso astuna eta zaila gertatu izan zait paperak lortzea, Donostiara, Bilbora eta Bartzelonara joan behar izan dut hauek eskatzeko. Azkenean behin-behineko paperak lortu ditut, eta oporretan Mexikora joateko asmoa daukat.

● Hona moldatzea zaila egin al zaizu?

Oso eroso nago hemen. Nirekin jendea irekia eta abegitsua izan da. Lehen hiru hilabeteak egin zitzaizkidan zailenak. Hala ere, beste etorkin batzuei entzun izan diet oso zaila egin zaiela.



Amy Lucke

Lima (Ohio, Ameriketako Estatu Batuak)



“AEB-n ekonomia handia denez, ordukako lanak aurkitzea erraza da”

Bere herrian ikaskide azpeitiar bat ezagutu eta haren bidez etorri zen aurrenekoz. Azpeitian Jabi —gaur egun bere senarra dena— ezagutu eta sei urtean joan-etorrian ibili ondoren Azpeitira bizitzera etor-

tzea erabaki zuen. Orain bitxi-denda bat dauka senarrarekin batera.

● Ameriketako Estatu Batuetan lehenago hasten al zarete lanean?

Nire ama izozkitegi bateko arduraduna

zen, ikasketak eta lana egiten nituen, denerako denbora ematen zuen, hori oso ohikoa da. Hamalau urterekin lanean has- teko aukera duzu, gero hamasei urterekin gida-baimena atera dezakezu, eta horrek ere eragiten du jendea lehenago hastea lanera. Autoa baduzu, gasolinarako dirua behar da... Ekonomia handia denez, ordu- kako lanak aurkitzea oso erraza da.

● Ohion zein jarduera da nagusi?

Ohio, ertzetik ibai garrantzitsu batek zeharkatzen du, eta hor daude herri han- diak: Cleveland, Columbus, Cincinatti... eta industria asko dago. Hango enpresa handi batzuetako produktuak honaino hel- tzen dira. Erdigunea, berriz, oso laua da eta nekazaritza da nagusi.

● Eta opor aldetik?

Bi egun *Thanks Given Day*, bi egun gabo- netan, eta uztailaren 4an Independentzi- aren Eguna. Hamabost egun dira oporrak, gero pilatzen joaten dira eta oporrak nahi direnean hartzeko aukera dago. Ondo fun- tzionatzen duen sistema bat dela uste dut, era horretan inoiz ez baita herrialdea gel- ditzen.

telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI

PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturririkiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria herri aldizkaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Egunkaria	943-30 02 22
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ - PNV	81 55 70
Batasuna	15 12 15
EA	81 00 11

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

IKASTETXEA

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesusen Alabak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola BHI	15 02 28

KULTURA - EUSKARA

Baite Euskara Elkarte	[oraindik ez]
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmaziyek gauez

APIRILAK 1-7

Jaen (Azkoitia). 85 06 60

APIRILAK 8-13-14-25

Etxebeste. 81 59 74

APIRILAK 9-26

Garcia. 81 12 74

APIRILAK 10-22-27-28

Zulaika. 15 03 34

APIRILAK 11-23

Aseginolaza. 81 13 50

APIRILAK 12-24

Beristain. 81 19 49

APIRILAK 15-21

Azpiazu (Azkoitia). 85 29 89

gune publikuek irikite

UDALETXEA

Astegunak: 9:00-13:30

Larunbatak: 9:00-13:00

IXPIXIOA

Egun osoz irekita

IGERILEKUA

Astelehenak: 14:00-21:00

Beste astegunak: 7:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Igandeak: 9:00-13:00

Kanpokoa: Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

Astelehenak: 9:00-13:00, 15:00-21:00

Beste astegunak: 15:00-21:00

Larunbatak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00

Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiak

JOATEKO

AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA

Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15

Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30

Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30

Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30

Enpresa: Pesa

AZPEITIA-EIBAR-BILBO

Astegunak: 6:35, 13:30

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZPEITIA-AZKOITIA

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10

Asteburuak eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da

AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUTZ

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10

Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25

Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40

Enpresa: EuskoTren

AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA

Astegunak: 6:55, 13:55

Asteburuak eta jaiegunak: 6:55, 11:10

Enpresa: EuskoTren

GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK

Aldalur	85 27 18	Pesa	21 26 99
EuskoTren	15 06 77	Piper Unibertsitate Elkarte	85 25 87
La Guipuzcoana	85 11 59	Taxiak	81 13 07

ITZULTZEKO

DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30

Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00

Enpresa: La Guipuzcoana

Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik

BILBO-EIBAR-AZPEITIA

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00

Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30

Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00

Enpresa: Pesa

LEIOA-BILBO-AZPEITIA

Astegunak: 14:00, 20:00

Enpresa: Piper Unibertsitate Elkarte

AZKOITIA-AZPEITIA

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55

Enpresa: EuskoTren

ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00

Asteburuak eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15

Enpresa: EuskoTren

Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da

ZARAUTZ-ZESTOA-AZPEITIA

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45

Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00

Enpresa: EuskoTren

ZUMARRAGA (hospitela)-AZPEITIA

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30

Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45

Enpresa: EuskoTren

TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA

Astegunak: 9:30, 18:30

Asteburuak eta jaiegunak: 9:30, 12:00

Enpresa: EuskoTren

Azpeitiko merkatu txikiye

1. ETXEBIZITZAK

- 1.1. Saldu
- 1.2. Erosi
- 1.3. Errentan eman
- 1.4. Errentan hartu
- 1.5. Etxeak osatu
- 1.6. Bestelakoak

2. LOKALAK

- 2.1. Saldu

- 2.2. Erosi
- 2.3. Errentan eman
- 2.4. Errentan hartu
- 2.5. Bestelakoak

3. GARAJEAK

- 3.1. Saldu
- 3.2. Erosi
- 3.3. Errentan eman
- 3.4. Errentan hartu

4. LANA

- 4.1. Eskaintza
- 4.2. Eskatera
- 4.3. Bestelakoak

5. MOTORRA

- 5.1. Saldu
- 5.2. Erosi
- 5.3. Errentan
- 5.4. Bestelakoak

6. BIDAIAK

- 6.1. Europa
- 6.2. Mundua

7. DENETARIK

- 7.1. Saldu
- 7.2. Erosi
- 7.3. Errentan eman
- 7.4. Errentan hartu
- 7.5. Bestelakoak

deitu

15 03 58

e-maila:

uztarria@topagunea.com

• Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.

• Uztarriak ez du iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

• Aldaketak adierazi Uztarriari.

1. ETXEBIZITZAK

1.1. SALDU

• **Jose de Artetxe.** 12 zenbakia. Lehen pisua. Telefonoa: 943 - 15 07 51.

• **Bustinzuriko Errebala.** 40 metro karratu. Hirugarren pisua. Bi gela, egongela, sukaldea eta bainugela. Leihoak Olazko Amaren Plazara. Telefonoa: 943 - 20 33 12 Leire.

• **Eliz kalea.** Eraikitzeaz dauden etxebizitzak. Egongela, bi-hiru logela, sukaldea, jangela, bi bainugela eta traste lekua. Telefonoa: 943 - 89 40 84 edo 636 97 43 20.

• **Soreasu.** 5. pisua. Telefonoak: 943 - 15 12 85 edo 943 81 22 99.

• **Iberotarren Enparantza.** 10.enean hirugarren solairua. Etxebizitza berria. Telefono zenbakia: 943 81 68 82.

2. LOKALAK

2.1. SALDU

• **Plaza Nagusia.** Lehen pisua, arkupean. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

• **Julian Elorza auzoa.** Telefonoa: 943 - 15 05 10.

• **Erdi kalea.** Telefonoa: 943 - 81 49 87.

• **Urbartarte.** Telefonoa: 609 37 87 31.

• **Urrestillara bidean.** 920 metro karratuko lokala saltzen da. Egoera onean. Telefonoa: 943 - 43 34 96.

2.3. ERRENTAN EMAN

• **Olazko Amaren Plaza.** Telefonoak: 943 - 15 08 72 edo 666 52 59 45.

• **Iñaki Azpiazu kalea.** Telefonoak: 943 - 81 18 00 edo 943 - 81 02 94.

• **Enparantza Nagusian.** Lehen pisua, arkupean. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

• **Pablo VI.** 1. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 14 63.

• **Pablo VI.** 5. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 03 25.

• **Urbartarte.** Telef: 609 37 87 31.

• **Juan XXIII.** 7. zenbakian. Telefonoak: 943 - 81 22 85 edo 943 - 81 28 97.

• **Landeta.** Telefonoa: 943 - 81 10 77.

• **Landeta.** Asepeyo-ren ondoan. Telefonoak: 943 - 81 17 59 edo 943 - 81 19 58.

3. GARAJEAK

3.1. SALDU

• **Garmendi.** 11. zenbakian. Telefono zenbakia: 943 - 81 04 45.

• **Arana Goikoa.** 5. zenbakian. Telefonoa: 943 - 58 10 42.

• **Santutxo.** 10. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 07 29.

3.3. ERRENTAN EMAN

• **Jose Artetxe.** Telefonoa: 943 - 15 75 25.

• **Foru Ibilbidea.** 2. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 03 25.

• **Juan XXIII.** 3. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 11 56.

• **Arana Goikoa.** Telefonoa: 943 - 81 34 95.

4. LANA

4.1. ESKAINTZA

• Autoa salgai.

Opel Corsa. Zuria. SS-AS matrikuladuna. 47.000 kilometro. Ondo zainduta eta egoera onean, berria bezala. Informazio gehiagorako telefonoa: 943- 81 43 85. (Olatz).

• Zuzendarikomertziala.

Lan eskaintza, Azkoitian. Kontratu mugagabea. Eskatzen da: 20-45 urte bitartean izatea. FP edo lizentziatura ikasketak eta esperientzia izatea autoen sektorean. Eskaintzen da: 24.000 eta 30.000 euro arteko soldata. 74358/4 eskaintza. www.langai.net.

• **Administraria.** Azkoitian. Hizkuntzak: ingelesa eta alemana. Telefono zenbakia: 943 29 25 42.

• **Galderagilea.** Urtebeteko kontratua. Eskatzen da B1 gida baita. 69818/2 eskaintza. www.lan-gai.net

5. MOTORRA

5.1. SALDU

• **Autoa.** Ford Orion. SS-AJ. 100.000 kilometro ditu. Telefonoa: 943 - 81 50 48.

7. DENETARIK

7.1. SALDU

• **Pianoa.** Modu onean. Telefonoa: 652 76 15 52. Iñaki.

7.2. EROSI

• **Kasetea.** Autorako musika kasetea erosiko nuke, prezio onean. Telefonoa: 946 - 71 02 04 (Arritxu).

• **Txanponak.** Txanpon zaharrosko erosiko nituzke. Telefonoa: 639 82 27 90. Pello.



Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jct.es

ODRIOZOLA ARDOAK



Julio Urquijo, 18
Tfnoa.: 850 011
AZKOITIA

Iñaki Azpiazu, 5
Tfnoa.: 15 13 16
AZPEITIA



J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08


Faxa.: 943 15 03 62



- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



Brillanteria-Oro Blanco y Amarillo-Festina Oro

Pastorkua Tabernaren ondoan

Jose Artetxe, 13 Tel. 943.15.76.13 AZPEITIA

argazkilaye: Uztarria

Uztarria I. Kulturaldia iruditan

● **OROTARIKO EKITALDIAK.** Ekitaldi anitzak jaso ditu otsailetik martxoa bitartean ospatu den Uztarria Kultur Koordinadoraren I. Kulturaldiak: rock kontzertuak, hitzaldiak, antzerkia, txalaparta, erakusketa, poesia, irudiak, artisautza... Kultur dinamika piztea zen helburua, eta hein batean lortu da hori.

● **ESKENATEGIAK.** Uztarria I. Kulturaldi honetarako ere eskenategiak ohikoak eta ezohikoak izan dira. Hala nola, Enparantza Nagusia, Orkatx eta Korrale tabernak, Zintzilik denda, Aitone-nako aretoa, Enparan eta azoka plaza. Herrian kultur azpiegitura aldetik gabezia dagoen seinale da hori guztia.





4

1. TIOBIBO.

Tiobibo eta Ezinean taldeen kontzertuarekin eman zitzaion hasiera I. Kultural-diari, otsailaren 23an.

2. URZAINKI.

Otsailaren 25ean Tomas Urzainki izan zen hizlari Aitonena aretoan, *La Territorialidad del Estado Navarro* gai bezala hartuta.

3. KITARRISTAK.

Martxoaren 2an udaletxe azpian Kitarrista taldeak euskal kantak eta herrikoiak eskaini zituen.

4. IBILTARIXANAK.

Ibiltarixanak-ekin Jose Luis Otamendi eta Iñigo Aranbarriren poesia, eta Bide Ertzean eta Pettiren musika entzungai izan ziren.

5. TXALAPARTA.


Hau da! Kultur Elkartearen eskutik txalaparta doinuak nagusitu ziren plazan.

6. DIAPOESIA.


Hiru azpeitiar gazteren poesia eta irudiak Orkatzen.



5



6



7. ARTISAU AZOKA.

Martxoaren 10ean Zaharra Berri Elkartearen eskutik Euskal Herriko artisau azoka izan zen plazan.

8. TXOTXA.

Mikelats AEK Euskaltegiak antolatutako txotxa. Sagar-doaz gain, txalaparta eta danbor doinuak nagusi izan ziren.

9. OS GALLARDOS.

Os Gallardos musika taldeak kontzertua eskaini zuen Korrale tabernan.



AUTOBUSEKO JOAN-ETORRIAK

GAIA.

Batek bakarrik
dakien arte,
zeozer; bitara
ezkero,
arriskutsua;
hirugarrena
ezkero, ez
dago biltzerik

Astelehen goiz hartan, betiko moduan, autobusaren aurrealdean eserita nengoan eta bidaia samurragoa egin nahita, musika erantsi nien nere belarriei. *Binomio de Oro* entzunez egin nuen Azpeitirako bidea. “*Te quiero, mien-teme, voy a olvidarte, te echo de menos...*” besterik ez, baina nola atsegin dudana besterik ez hori! Vallenatoaren erritmo beroan maitasun eta gorrotozko abestiak bat bestearen atzetik...

Azken finean, eguneroko kantutak eta kontutak.

Gustoen nengoan horretan, zintaren aurpegi hura amaitu zitzaidan abestiaren erdi-erdian eta isilune hartan zintari buelta ematera nindoala, atzealdetik zetorren gizonezko baten ahotsa entzun nuen, ozen eta garbi ari zelarik, guztiok entzuteko moduan. Laster konturatu nintzen mugikor batetik ari zela hizketan. Espainolez egiten zuen: “Aizu, badakizu maite zaitudala, ez? Bai, zuk ere hala diozu baina hitzez baino ez, ikusteko nago oraindik. Zurekin beti berdin! Hainbat aukera eman dizkizut eta nazkatzen hasia nago... Bueno, ostiralean etorriko al zara orduan? Ba joan erabakitzen, etortzeko asmoa baduzu emakumeari beste ohea prestatzeko esan behar diodalako. Ez, ez, ez. Bakoitza bere ohean eta orduak doazen heinean ikusiko dugu. Elkarrekin baina nahastu gabe... Abisatu orduan... Nik ere baietz...”. Eta muxu ozen baten ostean, elkarriketa amaitutzat eman zuen gizontxo hark.

Lotsatua sentitzen nintzen, lotsatua elkarriketa hura entzun izanaz. Mundu guztiak entzuteko moduan aritu zen telefonoz bestalde zegoen emakumearekin, beraiena izan behar zuen solasaldi intimo hartan.

Irudika nezakeen emakumearen aurpegia, negar zotinka beste aukera bat eskatzeko ahaleginetan.

Atzera begiratu nuen orduan eta gizona ikusi nuen. “Heu izan behar” pentsatu nuen. Hilabete batzuk lehenago eta autobus berean egoera berdintsuan egin nuen topo harekin. Orduan, musikaren ginetik entzun nezakeen bere telefono jarduna, ozen aritzeaz gain, gertuago zegoelako.

Emakume batekin ari zen orduan ere eta berdintsua zen elkarriketa, gogorragoa nahi bada. “Zergatik etortzen naizen Azpeitira? Hemen lana daukat eta lagunak, entzun? Zuk ez daukazu erre-mediorki!”.

Bidaiaren azken zatian, bi solasaldiak lotzen saiatu nintzen zailtasunez betea zirudien maitasun istorio honen hariak lotu nahian. Gizona Azpeitiko kale-

etan txikiteoan bakar-bakarrik ikusi izana. Gogoratu nuen, lagunak bazituela esana bazion ere emakumeari eta, autobuseko gainontzeko bidaiariari.

Jakin-minez beteak gaude gizakiok, *kotilleoak* sobera atsegin ditugu, besteen trapu zaharrak astintzen aritzea atsegingarria egiten zaigu eta lau haizetara zabaltzea zilegi iruditzen zaigu. Az-peitian, inon baino gehiago.

Ba, benetan diotsuet, zenbat damutzen zaidan hura guztia jada bi biderrez entzun izanaz. Orain, gizona ikusten dudana bakoitzean, barruak buelta ematen dit, gizonaren begi urdin-urdinen atzean bakardadea baino ez dut ikusten, eta jakin-mina sortu ordez, ahazteko gogoia baino ez zait etortzen.

Ezagutzen ez dudana istorio baten erruduntzat joa daukat jadanik tipoa eta inork ez du halako tratamendurik merezi. Hala ere, hirugarrenez harekin autobusean topo egiten dudanean, zin dakizuet, musikaz belarriak lehertuko bazaizkit ere, gizontxoaren jolasaren lekuko ez naizela izango.

Berdinean, Binomioren fikziozko maitasun kontutak entzutea nahiago!



As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

APIRILAK 3 (asteazkena)

- **GAZTE ASTEA .**
Zapo Txokok antolatuta III. Gazte Astearen barruan es-tentsio tailerra, ping-pong eta futbolen txapelketa 10:00eta-tik 13:00etara. Makilaia taile-rra eta xake eta mus txapel-keta 16:00etatik 20:00etara. Zapo Txokon.
- **LARUNBATEZ JOLAS .**
Taldea arrosa: Igerilekura. Tal-de berdea eta urdina: Aiara ir-teera, Pagoetako parkera.

APIRILAK 4 (osteguna)

- **GAZTE ASTEA .**
Zapo Txokok antolatuta III. Gazte Astearen barruan mendi irteera eta eskalada 10:00etan Zapo Txokotik abiatuta. Salsa eta merengea dantzak 16:00etan. Historias del Cronen bideo-foruma 18:00etan.

APIRILAK 5 (ostirala)

- **GAZTE ASTEA .**
Zapo Txokok antolatuta III. Gazte Astearen barruan pul-terra, belarritako eta erazu-ten tailerra 10:00etan. Zapo Txokon. Betik-gora gurgil gai-nean, bizikleta irteera (Azpei-

Euskal Eskola Nazionalaren Eguna antolatu du Hau da!-k

● **EKITALDIA:** Euskal Eskola Nazionalaren Eguna ● **EGUNA:** Apirilak 21 (igandea) ● **ORDUA:** 10:30etik aurrera ● **TOKIA:** Enparantza Nagusia eta Frontoi Txikia ● **ANTOLATZAILEA:** Ikasberri Azpeitiko Ikastolako Hau da! Kultur Elkartea

Nerea Uranga / Hau da! Kultur Elkartek apirila-ren 21erako Euskal Eskola Nazionalaren Eguna antolatu du. "Ikastola proiektua Euskal Herri osokoa dela aldarrikatzea da" Hau da!-koentzat egunaren helburu nagusia. "Alegia, hezkuntzari dagokionean, lurralde-tasuna kontuan hartzen duen proiektu baka-rra dela". Haien ustez, aldarrikapen horrek une hauetan "zentzu handiagoa" du, "ikusita Espainiako Estatutik datozen erasoak, Kalitatearen Legea kasu. Gaur egun, Euskal Herriak ez du hezkuntza sistema propiorik. Orain artean Espainiako eta Frantziako esta-tuek sistemak kudeatu ditugu, baina aurre-rantzean honetarako ere ez dugu aukerarik izango".
Apirilaren 21ean Azpeitian Euskal Herriko inguru erdaldunetako ikastolak bilduko dira,

hala nola: Arabatik Lapuebla de Labarcako ASSA Ikastola, Bizkaitik Leioako Betiko Ikastola, Nafarroatik Tuterako Argia Ikastola eta Lapurditik Hazparne Ikastola. Ikastola haietako gurasoei, ikasleei eta irakasleei 11:00etan ongi-etorria egingo zaie plazan, eta ondoren umeen arteko pilota partidak eta herri kirolak izango dira Ikaspilotak antolatu-ta plazan eta Frontoi Txikian. 14:30ean, baz-ria izango da azoka plazan; horretarako sarrerak Pastorkua, Zuhatz eta Ongi Etorri tabernatan eta Ikasberri Ikastolan (943-151246) izango dira salgai. Eta ondoren Baiona Kantuz-ekin kanta herrikoiak abeste-ko aukera izango da. 16:30ean umeentzat animazioa eta Txan magoa izango dira. 18:30ean, berriz, Azpeitira etorritako ikastola ezberdinetoak agurtu egingo dira.

tia-Oñatz- Aratz Erreka) 16:00etan.

APIRILAK 6 (larunbata)

- **GAZTE ASTEA .**
Zapo Txokok antolatuta III. Gazte Astearen barruan puenting-a 09:00etan. Azka-rateko zubian. Perkusio ikus-taldia, argazki erakusketa eta afari merienda. 16:00etan. Zapo Txokon.
- **ARETO FUTBOLA.**
Bigarren dibisioa A: Jostaldi-

C.D. Makex. 16:30ean. Kirol-degian.

- **FUTBOLA.**
Preferentea: Lagun Onak-Gure Txokoa. 17:00etan. Garmendipen.
- **MUSIKA.**
Kittarra Taldea. Udaletxeko arkupetan arratsaldeko 19:30ean.

APIRILAK 7 (igandea)

- **MENDIA.**
Lagun Onak Mendi Bazku-

nak antolatuta Trintxera-Ze-latun-Andatza-Usurbil mendi irteera. Bazkaria sagardote-gian izango da. Irteera plaza-tik 08:00etan.

APIRILAK 8 (astelehena)

- **ERAKUSKETA.**
XXIII. Kutxa Juan Antxieta ar-gazki lehiaketako 2002ko inuterietako argazkien era-kusketa irekiera eta sari ba-naketa 19:00etan. Astegune-tan 18:00etatik 20:00etara.



DUEN ORDUTEGIAGATIK
DITUEN ZENTROENGATIK
ESKAINTZEN DEN ARRETA BEREZIAGATIK
DUEN KALITATEAGATIK

AZKOITIA
Ibai ondo, 16
Tel.: 943 852034

AZPEITIA
Pablo VI, 20 behea
Tel.: 943 150816



Apirilaren 26ra arte erakus-
keta irekita. Antxieta Etxean.

APIRILAK 9 (asteartea)

- **ZAPO TXOKO.**
Motor konponketa tailerra.
18:00etan

APIRILAK 14 (igandea)

- **MUSIKA.**
Izarraitz Txistulari Taldea.
Udaletxeko arkupetan arra-
tsaldeko 19:30ean.

APIRILAK 18 (osteguna)

- **MAHAINGURUA.**
Hau da! Kultur Elkarteak an-
tolatuta. Gaia: Euskal Eskola
Nazionala.

APIRILAK 19 (ostirala)

- **MUSIKA.**
Txalamatxo Txalaparta Tal-
dea. Udaletxeko arkupetan
gaueko 22:00etan.

APIRILAK 20 (larunbata)

- **ARETO FUTBOLA.**
Bigarren dibisioa A: Jostaldi-
Bodega Sagües. 16:30ean.
Kiroldégian.
- **FUTBOLA.**
Preferentea: Lagun Onak-
Hondarribi. 17:00etan. Gar-
mendipen.
- **ANTZERKIA.**
Hau da! Kultur Elkarteak an-
tolatuta Lakrikun Antzerki Tal-
dearen 'Garalderen Re-
quiem-a' antzezlan. Sorea-
su antzokian. 22:00etan.

Soreasuko filmak



• **'ATANDO CA-
BOS'.** • **ZUZENDARIA:**
Lasse Hallström • **AKTO-
REAK:** Kevin Spacey, Ju-
lianne Moore, Judi
Dench, Cate Blanchet... • **ARGUDIOA:**
New York hiriko erredaktore bat Terra-
nobara doa bizitzera bere alaba eta ize-
barekin, familiaren jaiotetxera. Han
izandako esperientziek bizimodua alda-
tuko diote. • **EGUNA ETA ORDUA:** Apiri-
lak 5 (19:30ean), 6 (19:30ean eta
22:00etan), 7 (17:00etan, 19:30ean eta
22:00etan) eta 8 (20:00etan) • **TOKIA:**
Soreasu Zinema Aretoa.

APIRILAK 21 (igandea)

- **MENDIA.**
Lagun Onak M.B.k antolatuta
Santa Engraziko eguna dela
eta mendi irteera. Irteera pla-
zatic 09:00etan.
- **MUSIKA.**
Bergara eta Juan de Antxieta
Musika Eskolen Jaialdia. Iza-
rraitzen eguadiako 12:30ean.

APIRILAK 28 (igandea)

- **MUSIKA.**
Azpeitiko Udal Musika Ban-
daren Kontzertua. Udaletxe-
ko arkupetan arratsaldeko
19:30ean.
- Zeuon ekitaldiak-eta Uztarriara
helarazteko aukerak:
- Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ez-
kerra (Azpeitia)
 - 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
 - uztarria@topagunea.com

bitxidenda



Plaza txiki, 7 - Telf. 943 81 23 67

bitxidenda



Plaza txiki, 7 - Telf. 943 81 23 67

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak
egiten dira



81 53 35


Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

JOSE - MAGKAR



**estetikako
azken
teknikak**

Enparan, 15-1
Tel. 813898



ION ARANBURU

“Lehen erropa ta guzti askotan saltau ber izeten gendun”

Azpeitiko igerilekue iriki zanetik ai da Arantxa bertan lanien. Harei eskerrak azpeitiar askok ikixi du igeriyen, ta oindiken'e beste askoi erakusteko asmue dauke.

● Igeriyen jende asko al dabil?

Ba bai. Hasierako urtietan jendie nobedade bezela etortzen zan, baño oin geo ta jende geyo etortzen da.

● Noiz ibiltzea jende geyen?

Goizeko zazpiretan-da langile asko etortzen da lanea jun aurretik igeriyen eitea. Egunien zehar ordu batzuk eoteye flojuek, baño beti dabil jendie. Medikuek gomendautere jende asko etortzen da. Zenbait momentuten igerilekue txikiye gelditzen da.

● Nolatan hasi zinen igeriten erakusten?

Nei bizi guztiyen gustau izentzat kirola eitie. Kirol pila bat praktikau ditut. Igerilekue zabaldu ber zala enterau ginen, ta ordun ikastaro batzuk ein ginuzen Gasteizen. Hemen lanien hasteko azterketa batzuk pasau ber zien, hauek ein da ja lanien hasi giñen, nere anaye, Maixabel Azurmendi eta ni neu.

● Ta zenbat denbora damakizu lan hontan?

Igerilekue bea iriki zanetik nabil hemen lanien; ba oin dala hogeitetik justu. Pentsau hogeit uztien zenbat jende pasau dan hemendik! Hogeit urte denbora asko

da, baño atzea beitutakuen azkar pasau diela konturatzen naiz.

● Ze adineko jendie ibiltzea geyen bat?

Adin danetakuek ibiltzen die. Bi urteko umientzako ikastaruek dauzkeu ta jubilauetan, berriz, 75 urteko bat'e badaukeu. Bataz besteko bezela, 45 urte eongo da.

● Sustoik izen al dezu sekule?

Hasieran jendiek ez zakiyen nun kubritze zuen ta askotan erropa ta guzti saltau ber izeten gendun.

● Itsasoko ude ala pistina-kue nayo?

Aukeran itsasokue nayo, osasunentzako hobio da, baño urtien zier ezin izeten da itsasuen ibili. Nik urtero eiten det Getari-Zarautz zeharkaldiye.

● Uderie gerturatzen hasten danien jende geyo animatze al da pistina etortzea?

Egualdiyek hobetzen hasten danien langilek-da nayo izeten debe kanpoko kirolak praktikatzen-da hastie. Baño beti etortzen da jendie igeriyen eitea

● Oin zenbat jende dabil?

Gutxi gora-behera egunero 400-500 lagun ibiliko die muskulaziyuen ta pistinan. Eskolatiken'e umiek etortzen die Diputaziyuek lagundutako ikastarueta. Zenbait ordutan igerilekue txiki gelditzen zaku egotean jendiekin.

“Medikuek gomendautere jende asko etortzen da; batzuten igerilekue txikiye gelditzen da”

“Hemen lanien hasteko azterketa batzuk pasau ber zien, ta hauek einda ja lanien hasi ginen”

Ion Aranburu

TXIKITEKO AMETSA. “Beti gustau izen zat kirola eitie ta nere biziko parte garrantzitsue da. Kirolakin harremana dauken lanen bat eitie nahi nuen ta lortu ein det”

ZATUZ GURE ERAKUSTOKIA IKUSTERA

*Altzari ekologikoa:
ingurugiroa errespetatuz,
gure bezeroak maite ditugu*




GAZTAINONDO, GEREZIZKO ETA HARITZEZKO ALTZARIAK



fabrikako prezioetan zure etxera
finantzaketa 36 hilabetera





Santi Lazkano Kirolak

Udaberri / Udar
2002

Jose Artetxe, 1 Tel/Fax: 943 81 16 50

sare@.informatika

Informatika, zuzandik gero eta hurbilago

€uroari egokitzeko egitasmoa



Enpresa eta autonomoentza
Telefonoa dohan



+ + @ = 0 ptas mes

Azpeitia Azkoitia Zarautz
Pablo VI 19 behe Julio Urkixo 10 behe Kale nagusia 1 behe

Telf: 943157 321

posta@sarea-informatika.com

Banatzaile Ofiziala
Euskaltel

SALMENTA ONDORENGO
ZERBITZUA.

Prezio ezinobeak ORDENAGAILUETAN

